

KRISTAU ESKOLETAKO ANAIEN

ARAUDIA



ERROMA – 2015

AURKIBIDEA

ARAUDIAREN BERRIKUSPENA 2015	5
DEKRETUA	7
ERREFERENTZIEN LABURDURAK	9
ANAIDI HONEN ESPIRITUAZ	11
ATARIKOA	15
LEHEN ZATIA – ANAIAREN BOKAZIOA	17
1. Kapitulua – ANAIDIAREN XEDEA ETA ESPIRITUA	19
2. Kapitulua – MISIOA	25
Hasieratik gaur egunera arte	25
Mundu pluralista batean	26
Misioa testigantza gisa	26
Misioa zerbitzu gisa: hezkuntza eta ebanjelizazioa	27
Misioa elkartasun gisa	30
Karisma berak adoretuta	31
Fedea eta apostolu-garrak bultzatuta	32
3. Kapitulua – BIZITZA SAGARATUA	35
Hasieratik gaur egunera arte	35
Jesu Kristori jarraituz	35
Sagarapen-formula	36
Dinamismo karismatikoa	38
Behartsuen hezkuntza-zerbitzurako asoziazioa	38
Anaidian irautea	40
Obedientzia	41
Kastitatea	43
Pobretasuna	44
Elkartean bizitako sagarapena	47
4. Kapitulua – ELKARTE BIZITZA	49
Hasieratik gaur egunera arte	49
Fede-elkarte	49
Senide-elkarte	51

Apostolutza-elkartea	54
Elkarte-bizitzaren antolamendua	56
Anai Zuzendaria	59
Elkartea eta Anaidia	61
5. Kapitulua – ANAIEN BIZITZA ESPIRITUALA	63
Behartsuei emanik bizi diren Anaientzako espiritualtasuna	63
Jainkoaren hitza eta fede-espirtua	63
Anaien otoitza	65
Ibilbide espirituala elkartean	67
6. Kapitulua – ANAIEN FORMAZIOA	71
– ANAIA IZAN, BIZITZA OSORAKO IBILBIDEA	71
Fede-hazkuntza eta laguntasuna	71
Anaidiaren erantzukizuna Anaiaren formazioan	73
Bokazioen pastoralgintza	75
– FORMAZIOAREN HASIERAKO ETAPAK	77
Bokazioen abegi ona eta laguntasuna	77
Postulantadua	80
Nobiziatua	80
Botoak egitea	85
Aldi baterako botoen garaia	87
Betirako profesia	89
Anaidiarekiko leialtasuna	90
Anaidian berriz hartzea	91
BIGARREN ZATIA – ANAIDIAREN GOBERNUA	93
SARRERA	95
7. Kapitulua – KAPITULU OROKORRA	99
8. Kapitulua – GOBERNU ZENTRALA	107
Anaiburu Orokorra	109
Anai Bikario Orokorra	111
Anai Kontseilari Orokorrak	112
Kontseilu Orokorraren bilerak	114
Anaidiko Zerbitzu Orokorrak	117

9. Kapitulu a – BARRUTIA ETA ESKUALDEA	119
Barrutia	119
Ordezkaritza	122
Eskualdea	122
Barruti Kapitulua	124
Anai Ikuslaria	127
Barrutiko Kontseilua	131
Ondasun tenporalen kudeaketa	135
10. Kapitulu a – ANAIK GAUR	139
GAIKAKO AURKIBIDEA	145
Zenbait hitz-multzo	235

ARAUDIAREN BERRIKUSPENA 2015

Anaia maiteok,

Poz handiz aurkezten dizuet Araudi berrikusiaren argitalpen hau. 2000. urteko 43. Kapitulu Orokorrak abiarazi zuen berrikuspen-prozesua, eta 1987ko Araudia argitaratu zenetik, Elizan, Anaidian eta munduan gertatutako aldaketei eta berrikuntzei buruz taldean egindako bereizmenaren emaitza da berrikuspen-prozesu hau. Garrantzitsua iruditzen zait aldaketa horietako bi aipatzea: gure asoziazio-botoaren zentraltasuna eta gure kide sekularrekin partekatutako hezkuntza-misioa.

2007. urteko 44. Kapitulu Orokorren ondoren bi batzorde sortu ziren Araudiari proposatutako berrikuspenekin proiektu bat prestatzeko. Batzorde horiek kontsulta-, lankidetzeta- eta elkarrizketa-lana bideratu zuten Anaidiaren maila guztietan, 2012ko irailean amaitu zena. Proiektu hau, Araudiaren berrikuspenarako bigarren batzordeak prestatutakoa, lan-dokumentu gisa proposatu zen eta onartu 45. Kapitulu Orokorrean.

Araudiaren testuak bi kategorietako artikulua biltzen ditu:

- KONSTITUZIOEK osatzen dute lehenengo kategoria: Anaidirako arauen funtsezko kodea dira; ezin dira aldatu Aulki Santuaren baimenik gabe.

- ESTATUTUEK osatzen dute bigarren kategoria. Hauek arauen kode osagarria dira; Kapitulu Orokorren agintaritzaren pean daude.

Hala ere, artikulua guztiek lege-indar berbera dute Anaidian, eta elkarrekin osatzen dute ARAUDIA, bere helburu izanik Anaiantzat gida izatea, Elizaren baitan haien bokazioa bizitzeko moduan.

Argitalpen berri hau, Bizitza Sagaratu Institutuentzako eta Bizitza Apostoliko Sozietateentzako Kongregazioak onartutakoa, 2015eko irailaren 8an sartzen da indarrean, Andre Maria Birjinaren Jaiotzaren Jaiegunean. Egun honetatik aurrera, indargabe gelditzen dira 41., 42., 43. eta 44. Kapitulu Orokorrek emandako Araudi-testuak. Jainkoari erre-

gutzen diot gure Anaidiaren bizitzako une honek bultzada berria eman diezaiola gure ardurapean jarriak izan diren guztien zerbitzuzko gure bokazioari; Ebanjelioaren lekuko garenez eta giza eta kristau heziketan parte hartzen duten guztiekiko elkartasunean, berriro aurki dezagula Jesusi jarraitzeko konpromisoa hartu genueneko maitasun hura, “maite izan ninduen eta bere bizia nire alde eskaini zuen” (Gal 2,20).

Maitasun amaigabe baten jomuga garela jakiteak bakarrik lagun dezake zailtasun pertsonal oro eta Institutuaren zailtasun guztiak gainditzten. Maitasun horrek bultzatzen ez baditu, pertsona sagaratuak ezin izango dute sortzaileak izan, Institutua berritzeko gai izan eta pastoral-bide berriak ireki. Maitasun horrek egingo ditu kementsu eta ausart, eta adorea eta ausardia emango.¹

Araudi hau, gure talde-bereizmenaren emaitza den hau, izan dadila gure salletar bokazioa alaitasunez eta maitasunez bizitzeko erabakiaren sinbolo; ager dezala pobre eta zaugarrirei eskainitako zerbitzuaren ikuspegi berritua, Elizak eta munduak egiten dizkiguten deien erantzun gisa, gure Anaidia bientzat oso beharrezkoa izaten jarraitzen baitu; indar dezala gure bizitzaren kontenplazio-dimentsioa Jainkoarenganako eta gizakienganako pasioz; eta lagungarri izan dakigula elkartean bizi dugun senide-bizitza dohaina are eta gehiago balioztatzen.

Erroma, 2015eko irailaren 8a,

Andre Maria Birjinaren Jaiotza Jaia

Senidetasunez, La Salleko San Joan Bautistarengan,



Anai Robert Schieler, FSC
Anaiburu Orokorra

¹ *Kristogandik abiatuz*, Bizitza Sagaratu Institutuentzako eta Bizitza Apostoliko Sozietateentzako Kongregazioa, 22. zk., Erroma, 2002.



CONGREGATIO
PRO INSTITUTIS VITAE CONSECRATAE
ET SOCIETATIBUS VITAE APOSTOLICAE

—
Prot. zk. P80¹ / 2007

Vatikanoko Hiria, 2015eko maiatzak 5

Anaia maite hori,

Jaso dugu zuen konstituzioei egindako aldaketak baiesteko eskaera; aldaketa horiek 2014ko Kapitulu Orokorrean bozkatu ziren, azken urte hauetan Institutu osoak egindako lanaren ondoren.

Lehenik, zorionak eta eskerrak eman nahi dizkizugu egindako lanarengatik, La Salleko San Joan Bautistarengandik jasotako karismarekiko leialtasunean zuen Institutuak duen bizitasun espiritualaren eta misiolariaren lekuko baita. Zure aurkezpen-oharrean azpimarratutakoaren ildotik nabarmendu dugu izaera juridikoari buruzko aldaketa gutxi egin direla, izan ere, orientazio karismatikoak berridatzi baitira nagusiki, honako hiru ardatz hauen inguruan:

- Senide-bizitza elkartean, asoziazio-boto berretsia kontuan hartuz (boto tradizionala, Fundatzailearengandik jaso, eta 2008an berriro sartu zena profesa-formulan).
- Fundatzaileari eta hasierei buruzko aipamenen arreta handiagoa.
- Misioari buruzko zehaztapenak, gure garaien eta tokien ingurua-barrera egokitzeke, bereziki pobreenen hezkuntza-zerbitzuari dago-kionez, gizarte sekularizatu honetan edo pluraltasun erlijiosoko testuinguruan, betiere kreaioarenganako errespetuari adi eta zuekin lan egiten duten pertsonen lankidetzari arretatsu izanik.


Hala, bada, baiesten ditugu 2014ko apirilaren 22tik ekainaren 2ra Erroman egindako Kapitulu Orokorrean bozkatutako konstituzioen aldaketak, gure artxiboetan jaso bezalaxe, salbuespen bakar batekin: 73. zenbakiari dagokiona, aurreko testuko 71. zenbakiko xedapenak aldatzen dituen.

Izan ere, Orduen Liturgia elkartean ospatzeari dagokionez, testu berriaren 73. zenbakiak, aurreko testuko 71. zenbakiak zioena aldatuz, honako hau dio: “Anaiak, gutxienez, goizez eta arratsaldez bilduko dira elkarte-otoitzaldirako. Horretarako, Orduen Liturgia erabiliko dute edota orientabidetzat hartuko...”. Baina, 663 §3 CIC kanonak liturgi orduak duintasunez ospatzera behartzen ditu erlijiosoak, zuzenbide propioaren xedapenen arabera, zeinak zehazten dituen ospatu beharreko orduak, ez, ordea, forma liturgikoa. Beraz, aurreko testua mantendu beharko duzue, liturgiaren ospakizuna Elizak zehaztutako arauen arabera ospatzea ziurtatzen duena, eta liturgiatic at otoitzaldi libreagoa egiteko elkartzeko baimena ematen duena.


Baietsitako aldaketak garrantzitsuak direnez, beharrezkoa da Araudiaren argitalpen berri bat egitea, argitalpen osatu, berrikusi eta zuzendutakoa; argitalpen hau Anaien eskura jarriko da eta guri hiru ale bidaliko dizkiguzue.

Zuen esperentziaz aberastutako eta zuen tradizioan sustraitutako konstituzio berri hauek, Anaia bakoitzaren konpromiso leiala sostenga dezatela opa dizuet, Jainkoaren Maitasunaren planaren arabera hezi ditzazuen gizon-emakumeak.

Har ezazu nire agurrik beroena Jaunagan eta helaraz iezaiozu Anaia bakoitzari ere nire agurra.



R. P. Sebastiano Paciolla, O.Zist
Idazkariordea



✠ José Rodríguez Carballo, O.F.M.
Artzapezpiku Idazkaria

ERREFERENTZIEN LABURDURAK

Liburu Santua

Eg	Apostoluen Eginak
Erm	Erromatarrei Gutuna
Flp	Filipoarrei Gutuna
Heb	Hebertarrei Gutuna
Jn	Ebanjelioa Joanen arabera
1 Ko	Korintotarrei Lehen Gutuna
2 Ko	Korintotarrei Bigarren Gutuna
Kol	Kolosarrei Gutuna
Lk	Ebanjelioa Lukasen arabera
Mt	Ebanjelioa Mateoren arabera
Os	Oseas
Sal	Salmoak
St	Santiagoren Gutuna
1 Tm	Timoteori Lehen Gutuna

Elizaren irakaspena

AG	Ad gentes – Vatikano II – 1965
ChL	Christifideles Laici – Joan Paulo II – 1988
ECE	Ex Corde Ecclesiae – Joan Paulo II – 1990
EG	Evangelii Gaudium – Frantzisko – 2013
FOIE	Formazioari buruzko Orientabideak Institutu Erlijiosoetan – CIVCSVA ¹ – 1990
GE	Gravissimum Educationis – Vatikano II – 1965
GS	Gaudium et Spes – Vatikano II – 1965
ILF	Institutuen arteko Lankidetzak Formaziorako – CIVCSVA – 1998
k	Kanona – Zuzenbide kanonikoaren kodea. Codex iuris canonici 1983
	Kristogandik abiatuz – CIVCSVA – 2002
LG	Lumen Gentium – Vatikano II – 1964
NMI	Novo Millennio Ineunte – Joan Paulo II – 2001

¹ CIVCSVA: Bizitza Sagaratu Institutuentzako eta Bizitza Apostoliko Sozietateentzako Kongregazioa

	Ordo prof. relig. Ordo professionis religiosae – 1970
PC	Perfectae Caritatis – Vatikanoko II – 1963
SBE	Senide Bizitza Elkartean – CIVCSVA – 1994
SC	Sacrosanctum Concilium – Vatikanoko II – 1963
SCar	Sacramentum caritatis – Benedikto XVI – 2007
VC	Vita Consecrata – Joan Paulo II – 1996

Anaidiko testuak

AM	Abituari buruzko Memoriala
AO	Kristau Eskoletako Anaiei Araudi Orokorra
B	Benedikto XIII. Aita Santuaren Bulda Kristau Eskoletako Anaiei Anaidia eta Araudiak baietsiz – 1725
BF	Botoen Formula
CL 7	Cahiers lasalliens, n° 7 – Blain, Vie de Monsieur... – I
CL 8	Cahiers lasalliens, n° 8 – Blain, Vie de Monsieur... – II
D	Kristau Eskoletako Anaiei buruzko Deklarazioa – 1967
GI	Gutun inprimatuak
GMA	Gogamen Otoitz Metodoaren Azalpena
GO	Gogarte-aldirako Otoitz-gaiak
IO	Urteko igande guztietarako Otoitz-gaiak
JO	Urteko jai nagusietarako Otoitz-gaiak
KEG	Kristau Eskoletako Gidaliburua – 1720
KO	Kapitulu Orokorra
SEB	Sagarapen Erlijiosoa eta Botoak – 39. Kapitulu Orokorra
T	Fundatzailearen Testamentua
TB	Zenbait Tratatu txikien Bilduma

N.B.: Argitalpen honen itxura tipografikoak kontuan ditu, batetik, Araudiaren batasuna eta, bestetik, bi zati handitan banatua izatea:

- **Konstituzioetako** artikulua letra borobilez eta zenbaki soilez agertzen dira.
- **Estatutu**etako artikulua letra etzanez eta zenbakiek zifra bat dute atzetik.

ANAIDI HONEN ESPIRITUAZ

Garrantzitsuena eta Elkartean arreta handienaz kontuan hartu beharrekoa, elkartekide guztiek Elkarrekin bereizgarritzat duen espiritua edukitzea da. Saia bitez, bada, nobizioak horretaz jabetzen eta Elkarrekin loturik daudenak beraiengan mantentzen eta handiagotzen. Espiritu hau baita beraien egintza guztiak adoretu eta jokaera guztien eragingarri izan behar duena; eta ez dutenak edota galdu egin dutenak hildako kideguztatzat hartuak izan behar dira, eta halakotzat eduki behar dute beren burua; izan ere, beren bizieraren bizi eta graziaz gabe aurkitzen baitira, eta Jainkoaren grazian irautea ere oso zaila izango zaiela jakin behar dute.

Anaidi honen espiritua, *lehenik*, Fede-espiritua da. Anaidia osatzen duten guztiak espiritu honek eraman behar ditu ezer ez begiratzera ez bada fedearen begiz, ezer ez egitera ez bada Jainkoaren ikuspegitik, eta dena hartuz Jainkoaren dohaintzat, beti Joben sentimendu hauek barneratuz: "Jaunak eman dit guztia, Jaunak kendu; Hari atsegin izan zaiona bakarrik gertatu zait", eta Idazteunean eta antzinako Aitalehen ahotik hain sarri adierazitako beste antzekoak.

Espiritu honetaz jabetzeko eta espiritu honetatik bizitzeko:

1. Lagunarte honetako Anaiek Idazteunari begirune txit sakona izango diote; eta hori adierazteko *Itun Berria* beti beraiekin eramango dute, eta ez dute egunik igaroko bertan zerbait irakurri gabe, bere baitan daukan jainkozko hitzei zor zaien fede, begirune eta gurtzazko sentimenduz, Araudi lehen eta nagusiz hartzen dutelarik.

2. Lagunarte honetako Anaiek fede-sentimenduz adoretuko dituzte beren egintza guztiak; eta egitean Jainkoaren aginduei eta nahiari adi egongo dira, horiek gauza guztietan gurtuz eta horien bitartez eta arauz beren buruak gidatzen saiatuz.

Horretarako, zentzumenak zuhertasun handiz zaintzen ahaleginduko dira, beharrezko denean bakarrik erabiliz eta, beti, Jainkoaren aginduen eta nahiaren arabera.

Beren buruaz beti erne egoten ahaleginduko dira, ahal duten heinean, ekintzarik ez dezaten burutu berezko bulkadaz, ohituraz edo giza arazoiz; baizik eta guztiak Jainkoak gidaturik, Haren Espirituaren eraginez eta Jainkoari atsegingarri izateko asmoz egiten arduratuko dira.

Jainkoaren presentzia santuari ahal duten adien egongo dira eta noizbehinka berritzen saiatuko dira; ongi jabetuz Harengan eta Hark agintzen duenaz baizik ez dutela pentsatu behar, alegia, beren eginbehar eta bizibideari dagokionaz.

Hain garrantzizkoak zaizkien aipaturiko eginkizunetatik aldendu ditzaketen ideia eta pentsamendu hutsalak beren burutik urrutiratu egingo dituzte, horiek gabe ez baitezakete ez lortu ezta gorde ere Anaidiaren espiritua.

Bigarrenik, Anaidi honen espiritua Apostolu-gar sutsua da. Alegia, haurrei irakasteko eta Jainkoaren beldur santuan hezteko Apostolugarra, errugabetasuna, galdu ez badute, gordetzera eragingo diena, eta bekatuari eta garbitasuna galaraz diezaieketen orori urruntasun handia eta izu itzela inspiratuko dien Apostolu-gar sutsua.

Espiritu honetan bizitzeko, Lagunarteko Anaiek, otoitzaren, irakaspenen, zaintzaren eta eskolako jokaera onaren bitartez

saiatuko dira beren ardurapena dauden haurren salbazioa erdiesten, jainkozaletasunean eta egiazko kristau espirituan heziz, hau da, Ebanjelioko arau eta esapideen arabera.

(II. kapituluko testu osoa:
“Anaidi honen espirituaz”,
Araudi orokorrak, 1718)

ATARIKOA

Beharrezkoa da Anaiek, San Agustinek bere Araudiaren hasieran esaten duena beren buruari egokitzea eta erregulartasunaren oinarri eta euskarriztat hartzea, alegia: "Elkartean bizi direnak batik bat Jainkoa maitatu behar dutela eta ondoren lagun-hurkoa"; izan ere, agindu hauek dira Jainkoak eman dizkigun nagusienak, eta erregulartasuna, edozein izanik ere, bi agindu hauek betetzetik aldentzen badugu, ez du ezer balio salbamenerako, bertan bizi direnei Jainkoaren aginduak zintzoki betetzea errazteko bestetarako ez baita ezartzen elkarreetan.

(XVI. kapituluaren zatia:
"Erregulartasuna",
Araudi orokorrak, 1718)

LEHEN ZATIA

ANAIAREN BOKAZIOA

1. KAPITULUA

ANAIDIAREN XEDEA ETA ESPIRITUA

- B 1
AO 1. kap
D 28,1
D 31
D 44
D 45
- 1.** “Artisauen eta behartsuen semeen” giza eta espirituzko egoera larriak hunkituta, La Salleko Joan Bautistak eta haren lehen Anaiak Jainkoari sagaratu zitzaizkion bizitza osorako, haren deiari erantzunez, haur haiei giza eta kristau hezkuntza emateko eta, horrela, Jainkoaren aintza lurrean zabaltzeko. Berritu egin zuten garai hartako eskola, pobreen eskura jartzeko eta guztiei Erreinuaren zeinu eta salbamenbidetzat eskaintzeko.
- PC 2
B 6
BF
D 5-7
- 2.** Espirituaren deiei eta Fundatzailearen karismari leial izanik, Anaiak, Jesu Kristori jarraituz, Jainkoari sagaritzen zaizkio haren aintzarako, “elkarrekin eta asoziazioz” hezkuntza-ministerio apostolikoan jardunez.
- PC 2
k 578
AO 1. kap
D 22
D 32
D 51
- 3.** Anaidi honen xedea da gazteei, pobreei batik bat, giza eta kristau hezkuntza segurtatzea, Elizak bere esku jartzen duen ministerioaren arabera. Kristau eskola da, beti berritze-bidean, Anaien jardueraren baliabide lehenetsia. Anaidia zabalik dago beste irakaskuntza- eta hezkuntza-motetara ere, garaian garaiko eta herrialdeetako beharren arabera.

k 588 §3
k 589
B 7
AO 1. kap

4. Kristau Eskoletako Anaien Institutua, Benedikto XIII. Aita Santuak hala onetsia “In apostolicae dignitatis solio” Buldaz, zuzenbide pontifikaleko Institutua da, erlijioso laikoak soilik osatua.

Mt 23,8
k 607 §2
VC 60
AO 1,1

5. Anaidi honetako kideak elkartean bizi dira eta Anaia izenez deitzen dira. Elkarte-bizitzaren izaera anaikorraren eta zerbitzu egiten dietenen arteko presentzia eraginkor eta desinteresatuaren bitartez, pertsonen eta herrien artean egiazko senidetasuna posible dela aitortzen dute.

GS 4,1
AO 2. kap
JO 96
D 22,1

6. “Anaidi honen espiritua fede-espiritua da”. Espiritu honek eramaten ditu Anaiak “ezer ez begiratzera ez bada fedearen begiz, ezer ez egitera ez bada Jainkoaren ikuspegitik, dena hartzera Jainkoaren dohaintzat”.

Fedearen baitan, Anaiak Ebanjelioaren argitan epaitzen dituzte lurreko errealitate guztiak.

Fedearen baitan, Anaiak Jainkoarekin topo egiten dute beren lan, ardura eta pozaldietan.

Fedearen baitan, Anaiak gertakizun eta pertsona oroengan, batik bat pobreenengan, Espirituaren zeinua eta deia bereizten ikasten dute.

Fedearen baitan, Anaiak, “Jesu Kristoren lankide” izanik, Jainkoaren Erreinua eraikitzeari eskaintzen diote bizitza osoa, hezkuntza-zerbitzuaren bitartez.

Fedearen baitan, Anaiak, haien Fundatzailea bezalaxe, Jainkoaren nahiaren eskutan jartzen dira.

k 675 §1
AO 2. kap
JO 201
JO 202
D 22,1

7. Fede-espirituak apostolu-gar bizia sortzen du Anaiengan haien eskura jarriak izan direnak zerbitzatzeko eta asmo berbera partekatzen dutenekin lan egiteko. Espiritu Santuak suspertutako gar honek adoretzen ditu haien otoitz apostolikoa eta hezkuntza-ministerioko ekintza guztiak.

Apostolu-konpromisoa Anaiek Jainkoari egindako sagarapenaren osagaia da. Anaidiaren espirituak eskatzen du elkartekide guztiak apostolu-garrez beteak izatea, Fundatzailearen bizitzaren eta irakatsien argitan.

Jn 16,13
AO 2. kap
D 38,5

8. Anaidiaren espirituan sartu eta bizitzeko, Anaiak Jainkoaren Hitzaz elikatzen dira etengabe, eta aztertu, hausnartu eta partekatu egiten dute beren artean. Begirune txit sakona diote Liburu Santuari, Ebanjelioari bereziki, haien “Araudi lehena eta nagusia”.

Otoitz-espirituaren bitartez eta Jainkoaren presentziari arreta izanez, Anaiak Espiritu Santuari adi daude eta Hark sartzen ditu gero eta barnerago fedearen egian.

Bibli eta teologi zientzien ikasketen bitartez Anaiek beren fedea elikatzen eta indartzen dute.

Barne-garbitzapenerako eta nor bere buruaren jabe izateko etengabeko ahaleginari esker saiatzen dira, ahal duten neurrian, beren ekintza guztiak “Jainkoak gidaturik, Haren Espirituaren eraginez eta Jainkoari atsegingarri izateko asmoz” egiten.

AO 2. kap **9.** Anaidiaren espiritua ezagutzea eta hartaz jabetzea dira Anaien hasiera-formazioaren helburu nagusi. Espiritu horretan hazteak haien biziera osoa konprometitzen du ebanjelio-ibilbidean. Horrek sendotu egiten du Anaienganako, ikasleenganako eta Partaideenganako haien leialtasuna.

k 578
D 5-7 **10.** Anaiak sinetsita daude Espiritu Santua beren aita La Salleko Joan Bautista santuaren bizitzan, egintzan eta idaztietan agertu zela modu berezian eta, ondoren Anaidiaren tradizio bizian. Anaiek iturri hauetan edaten dute beren misioaren eta jokabidearen printzipio inspiratzailea. Horregatik, saiatu egiten dira Fundatzailearen ezagutza eta Anaidiaren historiarena sakontzen.

VC 54 **11.** Anaiek, bizitza osoz, beraien artean eta pobreen hezkuntza-zerbitzurako duten konpromisoak ematen dio Anaidiari bere berariazkotasuna.

Anaiek Elizarekiko elkartasunean bizi dute beren ministerioa eta, batik bat, hezkuntza-misio berbera partekatzen dutenekin. Haientzat, hezkuntza-konpromisoaren duintasunaren eta handitasunaren lekuko dira eta gazteekiko, bereziki behartsuekiko, arduraren testigu.

Misiorako asoziazioak eramaten ditu salletar karisma partekatu eta sakonean ezagutu nahi dutenak onartzera eta haiei laguntasuna eskaintzera. Anaiek misio partekatuan egiten duten berariazko ekarpena,

elkartean bizi duten Hirutasun Guztiz Santuari eginiko sagarapenean sustraitzen da. Haien erabateko eskaintza Jainkoak gazteei dien leialtasunaren zeinu berezia da.

D 25

12. Anaia bakoitza bere bokazioaren dimentsio osagarriak integratzen saiatzen da: Jainkoari erlijioso laiko gisa eginiko sagarapena, hezkuntza-ministerio apostolikoa, pobreen artean batik bat, eta elkartebizitza.

2. KAPITULUA

MISIOA

Hasieratik gaur egunera arte

GS 11
PC 8
k 675 §3
k 677
AO 1,4.6

13. La Salleko Joan Bautista eta lehen Anaiak, “artisaunen eta behartsuen semeen” egoera larriak hunkiturik, eta Jainkoaren asmo salbatzailearen kontenplazioari erantzunez, asoziatu egin ziren doaneko kristau eskolak eramateko.

Kristau heziketa eta kalitatezko irakaskuntza bata bestearekin loturik, eta modu anaikorrean eginez, zerbitzu garrantzitsu eta premiazkoa eman zieten Elizari eta gizarteari.

Gaur egun, Anaiek aurrera daramate salletar misioa, berau salletar karismaren gaurkotasuna onartzen duten gizon-emakumeekin partekatuz.

Testigantza, zerbitzu eta elkartasun gisa bizi dute Anaiek misioa.

Anaidia, lehenik eta behin, duintasuna eta oinarrizko eskubideak ukatzen zaizkien hezkuntza-premiez arduratzen da. Bere misioan saiatu egiten da Jainkoaren seme-alabatzat duintasunez bizitzeko aukera eskaintzen. Anaidiak bere obrak sortu, berritu eta dibertsifikatu egiten ditu Jainkoaren Erreinuaren premien arabera.

Mundu pluralista batean

AG 11
D 11

14. Anaiak beren ardurapean direnen desio sako-
nenak ulertzen saiatzen dira. Berri Ona iragartzeko
baliabide aproposenak bereizten dituzte ingurune
sozial eta erlijiosoari arreta izanik.

***14.1** Salletar misioa garatzen da ingurune
sekularizatueta, erlijio ugari eta kultura anitzeta-
koetan, nola nazio-eremuan hala nazioartekoan.
Ingurune hauetan, zerbitzatzera deituak direnekin
begirunezko elkarrizketa izaten ahalegintzen dira
Anaiak. Jarrera honek irekitasuna eskatzen du eta
entzun, ikasi eta Ebanjelioaren balioen testigantza
emateko borondatea eta, ahal den neurrian,
Jainkoaren Hitza aldarrikatzea.*

***14.2** Anaidiaren karismarekiko leialtasunean
irauteko, Anaiak aztertu egiten dituzte hezkuntza-
eta pastoral-premia berriak. Modu sortzailean
erantzuten diete, bai gaur eguneko beren ikaste-
txeetan, baita bestelako hezkuntza-zentroak ere
sortuz pobreen zerbitzuan.*

Misioa testigantza gisa

673
VC 8
JO 195

15. “Jesu Kristoren enbaxadore eta ministro” izanik,
Anaiak Jainkoari sagaratzen diote bititza, hezkun-
tzaren mundura Ebanjelioa eramateko.

Anaien lehen erantzukizuna eta misio partekatuari

egiten dioten ekarpen berezia elkarte ministerialaren testigantza da, erlijioso-bizitza senide maitasunean bizi duena eta pobreekiko solidaritatean hezkuntza-zerbitzuaren bitartez.

Jainkoaren egitasmoaren zeinu eta bitartekoa da biziera sagaraturen testigantza elkartean bizi izana. Maitasuna errealitate salbatzailea dela adierazten du eta beraien artean eta besteekin Anaiak izanik ikusgarri egiten dute Jainkoaren Erreinua.

Misioa zerbitzu gisa: hezkuntza eta ebanjelizazioa

JO 160,3
GO 193
D 39,4
D 48,7

16. Anaiak ministeriotzat hartzen dute beren lana. Kultur aurrerapena eta Jainkoaren Hitzaren aldarrikapena bata bestearekin uztartzen saiatzen dira, zerbitzatzen dituztenei lagunduz giza eta ebanjelio-balioak aurkitu, estimatu eta asimilatzen.

Bakoitzari lagundu egiten diote zentzuaren bilaketan eta Jainkoaren bilaketan.

Jakin badakite pertsonaren garapen integrala sustatzen duen hezkuntzak ireki egiten duela pertsona Jainkoaren graziara eta fedearen argira.

EG 178
D 32,2

16.1 *Bereziki pobreengana bidaliak izanik, Anaiak inguruan duten pobreziaren sustraiez jabetzera eramanak dira, pertsonalki eta elkarte gisa, eta hezkuntza-zerbitzuaren bitartez justiziaren eta giza duintasunaren sustapenean gogotsu jardutera.*

Kezka honek berak adoretzen du Anaien jarduera, berau giza maila erosoago batera zuzenduta dagoenean. Haien ardurapean daudenak solidaritate-espirituan hazarazten dituzte eta injustizi egoeren aurrean sentsibilizatzen, izan ere sarritan pobreak dira horien biktimak.

JO 145,3
D 38,1

17. Anaien bizitza eta hezkuntza-jarduera Elizaren ebanjelizatze-egintzan integratzen dira. Katekesia dute beren “zeregin nagusi”, Fundatzaileak azpimarratzen zuen bezala. Uste sendo honek norabidetzen du haien formazioa eta haien eskutan jarri ahal izango diren zereginen hautapena ere.

GE 8
ECE 32
CG 44
Cap. 5,1

17.1 *Anaiak saiatzen dira salletar erakundeek denen eskura jar ditzaten salbamen-bitartekoak. Kalitatezko hezkuntzaren bitartez egiten dute hori eta, ahal den neurrian, Jesu Kristoren aldarrikapen esplizituz, kultur inguruneak kontuan hartuz.*

Hezkuntza-programek beren baitan daramate bakearen, justiziaren eta kreaizioaren osotasunaren sustapenaren aldeko ardurak. Anaiak erne daude haur eta gazteen eskubideak defendatzeko.

Goi mailako hezkuntza-erakundeetan lan egiten duten Anaiak saiatzen dira ikasleak prestatzen, haien konpromiso profesional eta pertsonaletan integra ditzaten justizia sozialaren aldeko ardurak eta pobrezia-mota ezberdinen aurkako borroka.

ChL 33
D 38,2

17.2 *Bataiatuak kristau gisa bizi eta Jesu Kristoren jarraitzaile izatera irits daitezzen, Anaiek laguntasuna eskaintzen diete fedearen, senidetasunaren eta zerbitzuaren bideetan. Lagundu egiten diete Jainkoarekiko harreman pertsonala garatzen, haren Hitzarekin, liturgiarekin eta sakramentuekin erlazio bizigarria izaten, eta gizartean konprometitzeko prestatzen.*

Tradizio erlijioso ezberdinetako pertsonen aurrean edota herrialde guztiz pluralistetan nahiz sekularizatueta, Anaiek ebanjelizatze bide berezien bila dihardute: kristau presentziaren eta senidetasunezko harremanen testigantza, doaneko zerbitzua, elkarrekin egindako otoitz-esperientziak eta erlijioen arteko elkarrizketa, eta Jesu Kristoren historia partekatzea. Eta bestaldetik, onartzen dute pertsona horien interpelazioa.

Sinesmen eta tradizio erlijioso ezberdinetako Partaideekin lan egiten dutenean, Anaiak saiatu egiten dira giza duintasunaren sustapenean, gizaki guztien arteko solidaritatean eta pertsonaren erabateko garapenean oinarritutako lankidetzaren eremu bateratua ezartzen, salletar tradizioaren arabera.

Misioa elkartasun gisa

B 6
BF
D 13,3
44. KO 1

18. Anaiaren misioa Jainkoak pobreen alde duen pasioan elikatzen da. Anaidiaren hasieratik Anaiek pasio honetan bat eginez, “elkarrekin eta asoziazioz” burutu izan dute beren misioa.

Anaien arteko elkartasuna, burutzen duten misioaren iturburu eta fruitu da. Onartu, eutsi eta bidali egiten duen elkarteko kide gisa dihardu bakoitzak bere apostolutzan. Eta elkarrearekin partekatzen ditu bere ministerioko pozak eta zailtasunak. Elkartasun hau misioan konprometiturik diren guztiengana iristen da.

KEG 0,0,2
D 8-11

18.1 *Anaiek elkarrean bereizten dituzte Jainkoaren deiak, eta fede eta apostolu-garraren baitan ematen diete erantzuna. Salletar misioan konprometiturik dauden beste pertsonengana zabalik diren instantzietan ere egiten dute bereizmena.*

Norberaren dohainak kontuan hartzen dituzte, baita aldien zeinuak, Ebanjelioaren eta Elizaren deiak, eta Anaidiaren orientabideak ere.

D 13, 3

18.2 *Asoziazio-botoaren eraginez, Anaia guztiek solidarioki esku hartzen dute Anaidiaren eliz misioan. Beren ministerioa burutzean, zereginak direnak direlarik ere, misio horren gauzatzean parte hartzen dute.*

18.3 *Adinak edo ajeek jaitsaraz dezakete Anaien jardueraren erritmoa. Fedeak eta apostolu-garrak*

*eraginik beren ministerioaren era egokituren bat bilatuko dute, Jainkoaren dei berriari erantzunez. Orduan, izango dute elkarteko Anaien eta Anaiburu-
ruen laguntza norberaren neurriko eta Anaidiaren xedearen baitako apostolutza-jarduerak aurkitzeko eta burutzeko.*

Karisma berak adoretuta

VC 55 **19.** Salletar karisma, Espirituak Elizari egiten dion dohainetako bat da, giza eta kristau hezkuntzari begira. Anaiak ezin izan zuten Partaideekin misio bera. Elkarrekin ziurtatzen dute karisma honen bizitasuna, animazio-, formazio- eta ikerkuntza-egiturak sortuz edota garatuz, non bakoitzak sakondu dezakeen bere bokazioaren eta salletar misioaren ulerkuntza.

VC 56,1 **19.1** Anaiak saiatu egiten dira asoziazio-espiritua hezkuntza-elkarteetan garatzen. Ahalegintzen dira salletar mezua kide guztiei ezagutzera ematen eta nahi dutenei gonbidapena egiten diete salletar espiritualtasuna partekatzerako eta beren konpromiso apostolikoa sendotzerako, eta gurarizko salletar elkarteetan sorkuntzan eta animazioan parte hartzerako.

MH 0, 0, 4-0,
0, 6
D 49,5
CG 44 Cap. 8

19.2 Fundazio-garaitik saiatzen dira Anaiak kristau laikotza sustatzen, batik batik beren lanbidea ebanjelio-ministerio bihurtu nahi duten hezitzaileen

artean. Barruti bakoitzak aitortzen du Partaide guztiek misioan duten eginkizun garrantzitsua. Horretarako, eta asoziazio-espirtuaren adierazpide gisa, Anai Ikuslariari laguntzeko partekatze-egiturak ezartzen ditu Barrutiak misioari dagozkion alorretan.

Fedeak eta apostolu-garrak bultzatuta

Mt 11,5
BF
JO 132,2
JO 166,2

20. Anaiek kristau hezkuntzaren ministeriorako jasotako dohaintzat bizi dute fedea. Fedearen baitan, Jainkoa kontenplazten dute, salbamina apalei eta pobreei eramateko langile aukeratu dituenak. “Elkarrekin eta asoziazioz” dihardute Partaideekin batera salbamen-egintza honetan, “behartsuak ebanjelizatuak” eta gazteak eta helduak gizaki eta Jainkoaren seme-alaba bezala haziak direneko lanbidean. Fedearen baitan, Jainkoa goستن dute haren Erreinua hedatzen ari dela ikusiz.

AO 2. kap
D 38,4
IO 43,3
GO 201,2

21. “Jainkoaren eta Elizaren ministro” diren Anaiek, “bihotzak hunkitzeaz” arduraturik, Jaunaren egintzak eskatzen duen “apostolu-gar sutsuz” burutzen dute beren misioa.

Gar horrek eraginik eta Jesu Kristo zerbitzariaren jarreraz, eskuzabalez jartzen dituzte beren denbora, talentuak eta indarrak, baita sufrimenduak ere, Jainkoak beren ardurapean ipini dituztenen zerbitzura.

Guztionengatik, saiatu egiten dira beren gaitasuna, harremanen kalitatea, bizitzaren testigantza eta fedearen sendotasuna egunero hobetzen.

Deitzen, sagaritzen, bidaltzen eta salbatzen duen Jaunaren presentziaz antzaldatzen da Anaien bizitza osoa.

3. KAPITULUA

BIZITZA SAGARATUA

Hasieratik gaur egunera arte

BF **22.** La Salleko Joan Bautistak eta lehen Anaiak bizitza konprometitu zuten haur pobre eta babesgabeen premiei erantzuna emango zien elkarte baten ezarpen progresiboan.

Jainkoak deituak bere Egintza burutuz hari Aintza emateko, elkarrekin bizitza osorako asoziatuz bizi izan zuten Hirutasun Guztiz Santuari eginiko sagarapena, “elkarrekin eta asoziazioz edukitzeko kristau eskolak”, doanekoak.

Ibilbide honek jarraitzen du inspiratzen eta norabide-tzen Anaien sagarapena gaur egun ere.

Jesu Kristori jarraituz

Erm 8,29
BF
SEB 47-49

23. Espiritu Santuaren dei pertsonalari erantzunez, Anaiak oso-osorik sagaratzen zaizkio Hirutasun Guztiz Santuari; eta horretarako asoziatu egiten dira kristau hezkuntza-ministerioan hari Aintza emateko.

Beren bizitzaren erabateko dohain honen bidez adierazten dute Jainkoak haiei eta haien ardurapean

daudenei dien maitasunean duten konfiantza. Ministerio eta maitasun honetan aurkitzen dituzte beren sagarapenaren eta santutzearen oinarrizko motibazioak. “Senide askoren artean lehen-seme” den Jesu Kristorekiko identifikazio-ibilbide bilakatzen dute biziera osoa, haren maitasunaren oroimen izateko eta haren ministerio salbagarriari jarraipena emateko.

Erm 6
k 654
VC 30
VC 41
D 17
D 18

24. Anaien sagarapenak bataioaren aberastasunak adierazten ditu beste kristau bizierekiko era berezian eta osagarrian. Sagarapen honek zentzua ematen die eragiten dituen konpromisoerik eta batu egiten ditu haien bizitzako une guztiak. Gainera, guztientzat eskuartean daramaten egintza, Jainkoaren Egintza dela gogoratzen dien zeinu iraunkorra da. Sagarapen hau Elizaren komunio-misterioaren agerpena da, Jainkoak gizadiari dion maitasunaren adierazpena eta zeinu profetikoa, giza errealitateak bereizterakoan Erreinuaren balioak irizpidetzat hartzen dituenak.

Sagarapen-formula

B 9
BF
AO 33. kap
41. KO
44. KO

25. Anaiak botoen bitartez adierazten dute beren sagarapena, lehenik aldi baterako bitartez eta, ondoren, betirako bitartez, ondorengo formula hau erabiliz:

Hirutasun Guztiz Santua, Aita, Semea eta Espiritu Santua, begirune handienaz zure aurrean ahuspez

jarririk, naizen guztiaz sagaratzen natzaizu, nik ahal dezakedan eta nigandik Zuk eska dezakezun heinean Zuri aintza emateko.

Honetarako nik, ...k, elkarrekin eta asoziazioz behartsuen zerbitzuan eskolak edukitzeko bildu diren Kristau Eskoletako Anaiekin bat egin eta haiekin lagunartean irauteko hitza ematen dut eta botoa egiten, bidalia izan naitekeen edozein lekutan, eta Lagunarteak berak nahiz Anaiburuek nire ardurapean jar dezaketena beteaz.

Horregatik egiten ditut, egin, behartsuen hezkuntza-zerbitzurako asoziazio-botoa, Anaidian irautekoa, eta obedientzi, kastitate eta pobretasun-botoak, Baieztapen Bulda eta Anaidiaren Araudiaren arabera.

Boto hauek oso-osorik beteko ditut (urte batean - ... urtetan) nire bizitza osoan.

Eta hau guztia baieztatzearren, sinatzen dut. ...n, ...ko ...ren...an.

Sinadura

k 669 §1

26. Anaiek egoerei egokitutako zenbait zeinuz egiten dute ikusgai beren sagarapena, eta batik bat Anaidiko abitua jantziz.

B 18

26.1 *Anaien ohiko abitua sotana eta iduneko zuriz osatzen da. Tokian tokiko egoeren arabera, Barrutietako arduradunek erabilerari buruzko arau praktikoak ezar ditzakete. Arau horiek Anaiburu Orokorraren baiespenaren pean jartzen dituzte.*

Dinamismo karismatikoa

AO 33. kap
43. KO
44. KO

27. Anaiek gaur egun, La Salleko Joan Bautistaren eta lehenengo Anaien jarraibidean, pobreen hezkuntza-zerbitzurako asoziazio-botoa egiten dute. Boto honek, Anaidian irautekoarekin batera, Anaien Jainkoaren aintzarako sagarapen erlijiosoaren bera-riazkotasuna adierazten du: estu-estu lotzen ditu Anaiak elkarren artean eta, aldi berean, Anaidi osoarekiko pertenezki espiritu solidarioa zabaltzen eta indartzen du.

Dinamismo karismatiko honek sormena sorrarazten du Anaiengan, ahalik eta erantzun onena eta iraun-korrena eskain diezaieten misioaren hartzaileen premiei. Dinamismo honek beste botoak ikuspegi honetatik ikustera eta bizitzera eramaten ditu.

Behartsuen hezkuntza-zerbitzurako asoziazioa

BF
D 28

28. Behartsuen hezkuntza-zerbitzurako asoziazio-botoaren bitartez, Anaiek pobreen eskura dauden hezkuntza-egintzak elkarre gisa “edukitzera” konprometitzen dira.

VC 51

28.1 *Boto honek Anaien artean sortzen duen kohesioak sostengatu eta handitu egiten du haien anaitasun-testigantza eta lagundu egiten dio Anaidiaren apostolutza-jardueraren eraginkortasunari.*

28.2 *Beharrezko erabakiak hartzera iristeko, Anaidiaren esparru ezberdinetan egiten diren bereizmenetan parte hartzeko duten eskubidea erabiltzen dute Anaiek eta betebeharra betetzen.*

VC 55

28.3 *Anaien elkartearen baitan agertzen den itundinamismoak lotu egiten ditu Anaiak salletar misioan konprometitzen diren guztiekin ere.*

AO 7, 14
kap
D 29-33

29. Ebanjelioaren argitan, Anaiek begien aurrean dute beti justiziaren sustapena eta, zuzenean nahiz zeharka, behartsuen aldeko zerbitzua –ekonomikoki pobreak, gizarte bidegabekeriaren biktimak, gaizkile eta gizarteak baztertutakoak–, Anaiek horiek lehenesten dituzte beren hezkuntza-ministerioan. Familia aberatsagoko ikasleez arduratzen direnean, erakusten dizkiete erantzukizunaren, justizia sozialaren eta karitate unibertsalaren betebeharrak.

Anaiek arreta berezia eskaintzen diete eskola-zailtasun handiagoak dituzten ikasleei eta arazo pertsonalak dituztenei edo ezin egokitu soziala edo familiarra pairatzen dutenei.

D 34,4

29.1 *Eskualdeek eta Barrutiek planak burutzera-koan, beren obren multzoari pobreen alde eta pobreziaren zergatien aurka benetan konprometituri jarduten lagunduko dioten planak burutzen dituzte. Plan hauen barnean sartzten da kongregazioen arteko lankidetzeta eta plan hauek garatu egiten dute hezkuntza-egintzen dimentsio komuni-*

tarioa eta misio partekatua bultzatzen, berau pobreen zerbitzura are gehiago zabal dadin.

JO 150,1

29.2 *Fundatzailearen antzera, Anaiek bihotz-berritze ibilbide gisa ikusten dute beren bizitza, gero eta pobreen kausaren alde estuago lotuko dituen bihotz-berritze afektibo, intelektual, moral eta erlijioso gisa. Besteekiko elkarrizketan egiten dute hori, giza errealitateei adis.*

VC 82

29.3 *Beren bizieraren eta Elizaren dotrina sozialean inspiratutako irakaskuntzaren bitartez, Anaiek ikasleak prestatzen dituzte herrien artean harreman bidezkoagoak sor ditzaten. Lagundu egiten diete justiziaren, bakearen, solidaritatearen eta kreatzioaren babesaren alde modu eraginkorrean konprometitzen.*

Anaidian irautea

Sal

138(137),
8

B 9

IO 59,3

TB 2,2-3

30. *Iraunkortasun-boto honen bitartez, Fundatzaileak eta Anaiek “bere Egintza eskutik uzten ez duen” Jainkoaganako konfiantza adierazten zuten eta, aldi berean, elkarrenganako konfiantzan oinarrituta, eskoletako egintzaren jarraipena bermatzeko gai izango zen elkartea elkarrekin eraikitzeko gogoia.*

Asmo berberak eramanik, gaur egun Anaiek Anaidian irauteko botoa egiten dute. Boto honen bitartez aitortzen dute beren bokazioarekiko leialtasuna, Jainkoaren maitasunetik egunez egun jasotzen duten

dohain zoragarria dela eta Jainkoaren leialtasunari egunero emandako giza erantzuna ere badela.

B 9
IO 59,3
TB 2,2-3

31. Boto honen bitartez, Anaidian irauteko hitza ematen dute bere misioa burutzeko eta senide- eta apostolu-elkartasunean bizitzeko; horretarako leial izanik Anaidiaren espirituari, Anaiei eta ministerioan zerbitzatzen dituztenei

1 Ko 2,12
BF
JO 189,1

32. “Lagunartean irauteko” promesaren bitartez elkartean anaitasunezko loturak sendotzera konprometitzen dira Anaiak, eta Barrutia eta Anaidia osatzen dituzten elkarteen arteko kohesioa sendotzera ere.

Espiritu Santuari eskatzen diote “eraman ditzala, Jainkoak eman dizkien dohainak ezagutzera”, eskuza-baltasunez misio beraren zerbitzuan jartzeko.

BF
JO 99,2
TB 16, 2, 10

32.1 *Anaiak beren nortasunaren orijinaltasun osoz konprometitzen dira Anaidian. Zailtasunak izango dituztela jakinik, prest daude bizitzako sasoi ezberdinetan Jainkoak egiten dizkien deiei pozez eta sormenez erantzuteko.*

Obedientzia

Mt 18,14
Jn 6,38
Flp 2,8
Heb 5,8
VC 92
BF

33. Obedientzia ebanjelikoa Espirituarekiko elkartasuna da. Espirituak Anaiei nahia Jesu Kristorenarekin identifikatzen du progresiboki, hura ez baitzen etorri bere borondatea egitera, “txiki horietakorik gal ez dadin” bidali zuenarena egitera baizik. Espiritu honek bere asmoak agertzen ditu munduko gertaeren,

gazteen, elkartearen, Anaiburuen, Anaidiaren beraren eta Elizaren bitartez.

Fundatzailearen jarraibideak eraginda, zeinak “Lagunartearen beraren” bereizmenaren pean jarri baitzituen bere desirak, Anaiek prestutasun-giroan bizi dute obediencia. Bakoitzak bere proiektu pertsonalaren gaineratik jartzen du proiektu komuna eta haren menpean jartzen norberaren interesak.

D 20,8

34. Espiritu Santua elkartean agertzen da normalean. Elkartean bakoitzaren iritzia entzun behar da, Anaia bakoitzarengan hitz egiten eta jarduten baitu Espiritu Santuak.

Adin-, pentsamolde-, formazio-ezberdintasunak aberastasun-iturri dira orientabideak eta erabakiak burutzeko orduan. Anaiburu eskudunari dagokio baliozkotasuna ematea.

Obediencia batzuetan zaila izan daiteke eta norberaren bidezko konbikzioen aurka joan. Norbere ikuspuntua elkarteari eta Anaiburuei azaldu ondoren, ez badute haiekin soluzioa aurkitzen, Anaiek onartu egingo dute, fedezko jarreran, Anaiburuen erabakia.

k 590 §2
k 601
T

35. Obedienci botoaren bitartez, Anaiek adierazten eta sagaratzen dute legezko Anaiburuei obeditzeko borondatea, Araudiaren arabera agintzen duten orotan eta, zuzenean nahiz zeharka, Anaidiaren xedearekin zerikusirik duen guztian. Boto honen bitartez, Aita Santuari ere obeditzera konprometitzen dira Anaia.

35.1 *Botoaren indarrez ezarritako aginduak oso bakanak izan behar dutenez, esplizituki adierazi behar du Anaiburu eskudunak bere nahia formula egoki bat erabiliz.*

Kastitatea

Mt 19,11-12
PC 12
k 599
GO 201,3

36. Jesu Kristori jarraitzeko eta beren bizitza Jainkoari erabat emana izatearen adierazpen gisa, Anaiak botoaren bitartez konprometitzen dira kastitatea zelibatoan bizitzera elkartean.

Espiritu Santuaren dohain eta heriotza eta berpizkundearen, sakrifizioaren eta emankortasunaren misterio den kastitate sagaratuak, azaldu egiten dio munduari zenbat balio duen, maitasuna guztien zerbitzura ipintzen duen bizitzak. Aldi berean adierazten du Jesu Kristoren piztueran oinarritutako promesaren esperantza, hots, maitasun horrek eternitate-balioa duela.

Kastitate-botoak guztiz prest uzten ditu Anaiak asoziazio-botoa misioaren zerbitzuan bizi dezaten.

PC 12
AO 7,13
JO 101,3

37. Konpromiso honek Anaiak daramatza, samurtasunak, jakinduriak, heldutasunak eta begiruneak markatutako maitasun oblatiboan bizitzera, eta senidetazuneko harreman-giroa sortzera haien eta ingurukoen artean. Aldi berean, haien ardurapean daudenak errespetuz maitatzera daramatza, libre izatera iritsi daitezen eta haien giza hazkuntza susta dezaten.

- PC 12 **38.** Anaiak saiatzen dira nork bere bizitza afektiboa bere gain hartzen, harremanetan bereizmenez eta diziplinaz jardunez. Elkartearen baitan aurkitzen dute premiazko sostengua, uste onez beteriko otoitzari eta laguntasun egokiari esker. Anaiak jakin badakite kastitate-bizitzarako deiak afektibitatea Ebanjelioaren balioen arabera bizitzera konprometitzen dituela.
44. KO 6. kap **38.1** *Anaien eskura jarriko dira hasierako formazioan eta formazio iraunkorreko programetan laguntasun espirituala eta pertsona adituen laguntza.*
- VC 88 **39.** Kastitateak benetako anaitasunaren dohaina eta elkarteko loturak biziarazten dituen afektua baloratzera daramatza Anaiak. Hori zaintzeko, kontu handiz ibiliko dira beren lan eta zeregin indibidualek irents ez ditzaten. Era berean, arretaz zainduko dute beren osasun fisikoa eta oreka psikikoa.

Pobretasuna

- Mt 8,20
Mt 19,24
2 Ko 8,9
PC 13
JO 86
JO 179,1
D 34,2
- 40.** Pobretasun ebanjelikoaren bidez, Anaiak Jesu Kristori jarraitzea aukeratzen dute, Jesu Kristo maitasunez pobre egin baitzen bere pobretasunaz gu guztiok aberasteko. Haren etsenpluari jarraituz, La Salleko Joan Bautistak uko egin zien bere ondasunei maisu pobreekin bat egiteko eta, haiekin, Jainkoaren probidentzian jarri zuen bere itxaropena, “Kristau Eskoletako Lagunartea” posible eginez.

Gaur egun, Anaiak, itxaropenezko gizonak, ibilbide berean konprometitzen dira, behartsu-bihotza moldatu eta Jainkoarengana bihurtzeko, haien egiazko aberastasun bakarrarengana. Horrela, ahalbideratu egiten dituzte beraien arteko asoziazioa, Partaideekiko eta Elizaren deiekiko prestutasuna eta zerbitzatu nahi dituzten pobreekiko solidaritatea eta hurbiltasuna.

Mt 10,8
Eg 20,35
St 2,15-16
JO 86
GO 194,1

40.1 *Zoriontasunen espirituan, diren eta daukaten guztia partekatzeko dohaintzat hartzen dute Anaiak. Beren lanean doakotasun-espirtuaz aritzen dira. Arreta berezia ematen diete pobreenei, Berri Onaren hartzaille pribilegiatuak baitira. Eta haien premiei erantzuna emango dieten baliabide onenen bila dabilta beti.*

Beren bizimodu pertsonal eta elkartekoan xalotasuna bilatzen dute Anaiak pobreengandik hurbilago egotearren. Haiekin lanean jardutean, eta haien egoera partekatzerakoan, pozik onartzen dute beren prestigio soziala galtzeko arriskua.

SEB 97-142

40.2 *Beren lanaren emaitza batera jartzean, Anaiak senidetasunezko solidaritatea azaltzen dute. Asoziazio-espirtuan, bakoitza pertsonalki elkarren arteko ondasunen erantzule sentitzen da Jainkoaren eta elkarteren aurrean. Anaiak bakoitzak askatasunez jartzen ditu bere talentu eta gaitasunak besteen zerbitzura eta behar duenean ez du besteei laguntza eskatzea zalantzan jartzen.*

VC 89
JO 96,3
D 30

40.3 *Ebanjelioaren maitasunez eta Jainkoaren Erreinuaren gonbidapenari jarraituz esperantzaren zeinu izanez, Anaiak pobre egiten dira eta pobreak maitatzera eta pobreziaren aurka irmo lan egitera konprometitzen dira.*

PC 13

40.4 *Anaiak erne daude beren lanaren emaitzak batera jartzean ez daitezen talde gisa aberasten joan. Aitzitik, eskuzabaltasunez partekatzen dituzte beren ondasunak Anaiekin, behar handienak dituzten Barrutiekina eta behartsuekin.*

k 600
k 668 §3

41. Pobretasun-botoaren bitartez, Anaiek uko egiten diete ondasunak edo dirutan baliozko diren gauzak beren kabuz eta aske erabiltzeari. Ondare-ondasunen jabegoa eta oinordetzeko gaitasuna bakarrik gordetzen dituzte.

Anaiak bere lanaren bidez ekoizten duena eta soldata, pentsio edo emaritzat jasotzen duena Anaidiarena da.

k 668 §§1.2

42. Anaia bakoitzak, lehen profesia egin aurretik, berak nahi duenaren esku utziko ditu bere ondare-ondasunen administrazioa eta usufruktua. Eta, betirako profesia baino lehen, lege zibilaren aurrean baliodun den testamentua egingo du, norberaren ondasunez zer egin erabakiz.

Hartutako erabakiak aldatzeko edo norbere ondasun tenporalei dagokien edozein ekintza egiteko, Anai Ikluslariaren baimena behar dute Anaiek.

PC 13
k 668 §4

43. Ebanjeliozko desatxekimendu-espirituz, betirako profesan gutxienez bost urte eman dituen Anaiak, askatasunez uko egin diezaieke bere ondasun pertsonalei.

Horretarako baimena izateko, Anai Ikuslariarengana joko du eta honek Anaiburu Orokorrari helaraziko dio eskaera.

Ahal den neurrian, uko egite hori balioduna izango da zuzenbide zibilaren aurrean.

Elkartean bizitako sagarapena

1 Tm 2,4
BF
GO 193

44. La Salleko Joan Bautistak eta lehen Anaiek Jainkoak haien esku jartzen zizkien hezkuntza-zerbitzura guztiz emana zegoen elkarrekin batean bizi izan zuten Jainkoarekiko sagarapena.

Anaiek, “gizaki guztiak salbatu eta egia ezagutzera hel daitezen nahi duen” Jainkoaren proiektuan parte hartzen ari direla jakinik, egunez egun burutzen dute beren sagarapena, “elkarrekin eta asoziazioz” eta “ahal dezaketen neurrian”, Anaidiaren misioari eskainiz beren buruak.

4. KAPITULUA

ELKARTE BIZITZA

Hasieratik gaur egunera arte

GO 193
D 7,1

45. La Salleko Joan Bautista gizonezkoen elkarte bat sortzera eramana izan zen. Gizon haiek, Jainkoak argiturik eta haren asmo salbatzailearekin bat eginik, asoziatu egin ziren salbamenetik urruti zen gazteria pobreaken premiei erantzuteko. Gaur, atzo bezala, Anaien elkarte orok gertaera horretan aurkitzen ditu bere funtsezko motibazioak.

JO 180,1

***45.1** Anaia bakoitzarentzat elkarte da bere bizitza ebanjelizatzeke, giza mailan garatzeko eta hezkuntza-beharren bereizmena egiteko eremu pribilegiatua.*

Anaiek, beren presentziaren eta parte hartze eraginkorraren bitartez, misioari emana den elkarte sagaratu eta anaikorra eraikitzen dute.

Fede-elkarte

Jn 17,21
VC 42
GMA 2,27

46. Jesu Kristoren otoitzean inspiratzen dira Anaiak: “Guztiak bat izan daitezela, Aita, zu nirekin eta ni zurekin biok bat garen bezala, munduak sinets dezan

zuk bidali nauzula”. Anaiek Jainkoari egindako sagarapenaren bitartekotza da elkarte.

Fede-elkarte da, non Anaiek partekatzen duten beraien Jainko-esperientzia, egoera ezberdinetan bizi izana: eguneroko eginkizunetan eta Jainkoaren Hitza entzutean, otoitz pertsonal eta elkartekoan, aldien zeinuen irakurketan eta Jainkoaren nahiaren bereizmenean.

D 27,2
D 20,2

46.1 *Elkarteak aintzat hartzen du Anaia bakoitza eta sostengua eskaintzen dio Jainkoaren nahiarekiko bere erantzun-ibilbidean.*

Jn 13,34
JO 91,2

46.2 *“Agindu berri bat ematen dizuet: elkar maita dezazuela. Nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar”. Anaiek beren bizitzako ardatz nagusi eta sagarapen erlijiosoaren lehen konpromisotzat bizi dute maitasunaren “agindu berria”.*

Mt 18,19-20
GMA 2,25-32
D 20,9

47. Anaien elkarte a otoitz-elkarte da. Anaiek elkarrekin egiten dute otoitz, elkarrekin Jainkoaren Hitza entzuten eta hausnartzen. Elkarrekin, Jainkoaren aurrean bekatari aitortzen dituzte beren buruak eta esku hartzen dute Eukaristian. Elkarrekin bilatzen eta aurkitzen dute Jainkoa.

Senide-elkarte

VC 41
GMA 2,24-
32
IO 39,3

48. Anaien elkarte-bizitza, beste ezer baino lehen, haien artean den Jesu Kristoren bitartez jasotzen duten Jainkoaren dohaina da. Hark ematen die Maitasun Espiritua, Anaia bakoitzaren baitan dena, eta hark gauzatzen du elkartearen batasuna.

Anaiek otoitzean eskatzen dute dohain hau. Eta besteen zerbitzura bozkarioz jarriz erantzuten diote grazia honi. Horrela, hirutasun-bizitza osatzen duten ezagupen eta maitasunezko harremanak adierazten dituzte haien artean, isla gisa.

IO 74

48.1 *Anaiek badakite beren elkartearen zeinu profetikoa dela, baina hauskorra. Elkarteari eragin dakizkiokkeen eguneroko higadurari eta ahuldadeari erne, etengabeko berriztapenean saiatzen dira. Esker oneko jarreraren onartzen dute elkartekideen arteko adiskidetzaren eta barkamenaren grazia.*

Kol 1,20

48.2 *Otoitzean eta lanean Jainkoarekin bat eginik, Anaiak ezberdintasun pertsonalak eta zaletasun naturalak gainditzera eramanez dira, gauza guztiak Jesu Kristorengan burutuko direla sinesten duen elkartearen eraikitzeke.*

49. Elkartearen da Anaien etxea. Bertan elkarrekin bizi dira. Bertan berriztatzen dute egunero adiskidetasunaren, onespenezaren, konfiantzaren eta elkarrenganako begirunearen esperientzia. Sufrimenduak eta pozak

partekatzen dituzte, eta elkarren interpelazioak onartzen. Arreta berezia ematen diete Anaia gazteei.

Atseginez partekatzen dituzte otorduak, aisialdia, eta elkarrekin bizitzeak eskatzen dituen zerbitzuak. Presentzia eraginkor honi eta elkarrenganako xalotasunari esker, Anaiek sendotu egiten dute elkartearen kohesioa.

Erm 12,10
Flp 2,3-4
AO 13,5-6

49.1 *Aszesiarik gabe ez dago elkarte-bizitzarik. Anaiek elkar onartzen eta maitatzen dute, beren ezberdintasun eta antzekotasunekin. Guztiekin atsegingarri izaten ahalegintzen dira eta inorentzat nekagarri ez izaten. Solasaldietan, positiboa dena nabarmentzen dute eta mingarri izan daitekeena saihesten.*

Mt 18,15-17
JO 91,2

49.2 *Bakoitzak jakin badaki bere Anaiak ohar-tarazten, tentuz eta maitasunez, haien jokaeran beraientzat eta elkartearentzat arazo- edo gatazka-iturri denari buruz. Elkartekideren bati zerbitzu hau egitera deitua izan daiteke zenbaitetan elkarte osoa; orduan Anai Zuzendariak anaiarteko batasunaren berme izatearen eginkizuna oso-osorik beteko du.*

k 666

49.3 *Elkarteak aisialdi eta oporraldiak antolatzen ditu. Anaia bakoitzak bereizmenez erabiltzen ditu gizarte-komunikabideak. Beste Anaien lana, otoitza edo atsedena kontuan hartuz, isiluneak zaintzen ahaleginduko da bakoitza.*

k 608
k 665 §1
k 667 §1

50. Anaien etxeak xumea izan behar du, anaitasunezko harremanak, otoitz- eta lan-biziera erraztuko dituen eran eratua. Kanonikoki eraikia da eta zenbait gela Anaiantzat erreserbatu izango ditu.

Anaiek, normalki bertan bizitzera behartzen dituzte beren buruak eta Anai Zuzendariaren nahiz Anai Ikuslariaren baimenik gabe etxetik ez joatera. Absentzia luze baterako arau kanonikoak beteko dira.

SC 73
k 921
k 922
k 998
k 1002
k 1004
AO 22. kap

51. Elkarteak afektu arduratsua azalduko die Anaia zaharrei, gaixoei, adoregabeiei edota probatuei, horrela guztiak Jesu Kristoren maitasunaz eutsiak senti daitezten.

Anaiek gogoz hartzen dute senide-adiskidetasunaren betebeharrak beren Anaiekin betetzea, hauek gaixotasunaren froga igarotzen dutenean edota Jauna beregana deitzera doanean. Ordua iristean, gaixoen sakramentua eskatzera gonbidatzen dituzte.

VC 51
NMI 43

52. Anaiek elkartean lantzen duten senidetasuna eskuzabalez partekatzen saiatzen dira. Elkartasun-etxe eta elkartasun-eskola den elkartea, eraginkorki irekirik dago besteengana, bihotz-zabaltasunez, bereziki Partaideengana, bokazio-bilaketan diren gazteengana eta elkartekideen hurbileko ahaideengana. Irekitasun hau bizitza pertsonal eta elkartekoaren eskakizunekin harmonizatu behar da.

CL 7,240-241
JO 180,1

53. Anaiak, bultzada berean, anaiak izan nahi dute elkarren artean, anaiak topo egiten dutenekin eta beren Partaideekin, eta anaia zaharrenak haien ardurapean jarritakoentzat. Beren harremanen bitartez, ebanjelio-senidetasunaren testigantza ematen dute, Jaunaren presentziaren zeinu dena.

Apostolutza-elkarte

VC 72
D 25, 4

54. Hezkuntza-ministerio apostolikora emana izanik, elkarteak badaki misioa beti aurkitzear dagoela, bizitzaren etapa ezberdinetan eta errealitate berriekiko kontaktuan. Horregatik helburuak eta metodoak berri-kusten parte hartzen du, Ebanjelioaren argitan bila dabilenaren eta bere jardueraren balio pastorala auzitan jartzen duenaren jarreran.

D 21

54.1 *Elkarte orok Barrutiaren egitasmo apostolikoaren burutzapenean esku hartzen du elkarte-testigantzaren bitartez. Eta Anaia bakoitzak parte hartzen du hezkuntza-egintzetan zuzenean jardunez, eta otoitzaren bitartez, Jesu Kristoren sufrimenduetan esku hartuz nahiz bere esku dauden beste zenbait moduren bitartez.*

54.2 *Elkarteak modu egokian hartzen du parte txertaturik den hezkuntza-erakundeen animazioan. Asoziazio-espirituan Partaideekin senidetasun-giroa sortzen saiatzen da, elkarren arteko begirune eta askatasunez, hezkuntza-elkartean fede-elkartea sorrarazteko asmoz.*

D 26, 4

54.3 *Hezkuntza-erakundeetan, Anaien elkartearen ikusgaitasunak ebanjelizazio-bide izan behar du.*

54.4 *Salletar karisma dohain bat da Elizarentzat eta munduarentzat. Gaur egun, gero eta gehiago da espiritualtasun-iturri misioa partekatzen duten guztientzat. Espiritu Santuaren deiei adi, Anaidia elkarre-biziera berrietara zabalik dago. Anai Ikuslariari eta haren Kontseiluari dagokio modalitateak bereiztea tokiko egoeren arabera.*

k 678

55. Elkarteak tokiko Elizaren pastoralgintzan txertatzen da. Era berean parte hartzen du Anaidiaren ahalegin misiolarian.

55.1 *Elkarreak harreman maitekor eta eskuzabalak mantentzen ditu Anaia misiolariekin. Haien obrak ezagutzen eta sustatzen saiatzen da.*

Elkarre-bizitzaren antolamendua

56. Elkarteak, Araudia bere egoera konkretuan bizitzara nola eraman aztertzeko denbora eta baliabideak hartzen ditu. Bere bizitzari edo misioari dagozkien erabakiak ere burutzen ditu. Elkarrizketek, bakoitzari bere pentsaera agertzeko ahalbidea eskaintzen diote eta ikuspegi eta ekintzen batasunera jotzen dute.

56.1 *Urte bakoitzaren hasieran, bereizmen-espirituan, Anaiek burutu edo berrikusi egiten dute beren elkarre-egitasmoa. Bertan, elkarre osatzen*

duen guztiak du tokia: otoitz-bizitzak, apostolutza-konpromisoek, anaitasunezko bizitzak eta barneko antolamenduak, formazio iraunkorreko aldiek, aisialdiek eta kanpoko harremanek.

Egitasmo horrek kontuan hartu behar ditu Barrutiko Kapitulua emandako orientabide edo arauak.

Burutu eta Anai Ikuslariaren baiespena jaso ondoren, elkarte-egitasmoak konprometitu egiten ditu Anaiak eta erreferentziatzat hartuko dute, indibidualki nahiz elkarte gisa, urtean zehar egiten dituzten ebaluazioetarako, batik bat Anai Ikuslariak elkarteari egiten dion arauzko ikustaldian.

56.2 *Anaia bakoitza bere egitasmo pertsonala burutzerara gonbidaturik dago. Egitasmo horrek bere bizitza batzen eta norabidetzen duen etengabeko konbertsio-prozesuan sartzen du.*

Egitasmo hori burutzerakoan eta ebaluatzerakoan, Anaiak gogoan ditu bere ibilbide espiritualak, elkartearen eskakizunak eta Barrutiaren egitasmoak. Nahi izanez gero, Anaiak elkartearekin partekatzen du bere egitasmoa.

D 20, 8

56.3 *Bilerak une pribilegiatuak dira Ebanjelioaren argitan gogoeta egiteko. Anaiak beren iritzia ematen dute, proposamenak aurkezten eta esperientziak eta ezagutzak partekatzen. Beharrezkotzat jotzen dituzte elkarte-bizitzarako eta gogo onez hartzen dute parte beraietan.*

k 627

57. Normalki, elkarte osoak jarduten du Anai Zuzendariaren Kontseilu gisa.

Anai Ikuslariarekin adostuta, Kontseilu murriztago bat ezar daiteke elkarteko Anaien kopuruak edo beste arrazoiren batek hori eskatzen duenean. Horrelakoetan, bera ordezkaturako dituen kide batzuk izendatzen ditu elkarteak, bere izenean delibera dezaten.

k 627

57.1 *Elkartean erabaki garrantzizkoenak hartu aurretik deliberamendu formalak egingo dira.*

Deliberamenduak eta hartutako erabakiak dagozkien aktetan jasoko dira, Anai Ikuslariari eskatutako baimenen aipamen berezia ginez.

Deliberamenduetan parte hartu ezin duten Anaiak behar bezala informatuak izango dira erabili diren edota erabiliko diren gaiez, eta hartutako erabakiez.

57.2 *Anaia guztiak solidarioak dira elkarteak burutu eta Anai Zuzendariak balioztatu dituen erabakiekin. Bakoitza gogotik saiatuko da horiek gauzatzen.*

PC 13

58. Elkarteak ebanjeliozko espirituz eta pobretasun erlijiosoaren eskakizunen arabera administratzen ditu bere ondasunak.

58.1 *Elkarte bakoitzak bere administrazioa, aurrekontua eta kontabilitatea ditu, erlazionatuta dagoen hezkuntza-zentroarenaz edo zentroenaz aparte. Bere ondasunen administrazioaren kontu*

emango die Anai Ikuslariari eta Barrutiko Anai Ekonomoari.

58.2 *Anaiek parte hartzen dute elkartearen aurrekontuaren burutzapenean eta gauzatzean, betiere bizimodu xumeari eusten saiatuz.*

58.3 *Enplegatuekin, justizia sozialaren eskakizunak kristau maitasunaren ezaugarriekin elkarlotzen ditu elkarteak.*

58.4 *Fundatzailearen espirituarekiko leialtasunez, eta tokian tokiko usadio kulturelei egokituz, opariei dagokien guztian elkartea saiatu egiten da ebanjeliozko doakotasun- eta desatxikimendutestigantza ematen.*

Anai Zuzendaria

k 618
VC 43
SBE 47-53

59. Anai Zuzendaria elkartearen eta haren batasunaren lehen arduraduna da. Xalotasunez eta zerbitzu gisa hartzen ditu bere gain dagozkion erantzukizunak.

Laguntasuna eskaintzen die Anaiei, adore ematen eta sostengatzen guztien onaren bilaketan; entzun egiten ditu konfidentzialtasuna gordez, eta informatu; lagundu egiten ditu bereizmenaren espirituan sartzen. Une egokian esku hartzen du helduak diruditen erabakiak egiaztatzeko, eta erabakitzeke gera ez daitezkeen arazoak erabakitzeko.

k 619

60. Anai Zuzendaria, erlijioso-buru gisa, bere Anaien zerbitzura dago, ibilbide espiritualean sostengatzeko eta bakoitzari bere bokazio pertsonala eta elkartekoa burutzen laguntzeko. Bere lankidetzaren, aholkuaren eta aginpidearen sostengua eskaintzen die. Araudiaren espirituan sartzan saiatzen da eta besteei hori bera egin dezaten laguntzen die. Zeregin honetan laguntasuna eskaintzen dio Anai Ikuslariak edo bere ordezkariak.

***60.1** Aldizkako elkarrizketa pertsonalaren erantzukizuna Anaia bakoitzari eta Anai Zuzendariari dagokie. Laguntasun hau da elkarre-egitasmoa burutzean aurreikusi behar den gaietako bat; Anaia bakoitzak Anai Zuzendariarekin adostuko ditu topaketa horietarako unea eta modua.*

***60.2** Anaiak fedean onartzen dute topaketa hau. Berau, batik bat, Anaien giza eta espirituzko hazkunderako bide den esperientzia partekatzea da. Anaitasunezko elkarrearen eraikitzea ere laguntzen du, non bakoitza arduradun sentitzen den eta jakin dakien entzuna, ulertua, estimatua eta maitatua dela.*

k 624

61. Anai Ikuslariak izendatzen du Anai Zuzendaria, Barrutiko Kapituluak aurreikusitako eran. Haren agintaldia, normalki, hiru edo lau urtetakoa da, eta behin edo bitan berritu daiteke, bederatzi urte jarraian pasa gabe.

k 623

61.1 *Lehenengo aldiz izendatua izatean, Anai Zuzendariak gutxienez urtebete lehenago egina eduki behar du betirako profesia Anaidian.*

61.2 *Anai Zuzendariari dagokio elkartearen, Anai Ikuslariaren eta Barrutiko beste elkarteen arteko ohizko batasun-lokarri izatea.*

61.3 *Baliagarri denean, Anai Zuzendariorde bat izenda daiteke, Elkarteko Anai Zuzendariari lagundu diezaion eta, behar izanez gero, ordezkatu. Izendapen hori Barrutiko Kapituluak ezarritako arauen arabera egiten da.*

k 636

61.4 *Ahal den neurrian, tokian tokiko Ekonomo baten laguntzaz, Anai Zuzendariak zainduko ditu ondasun higiezinak eta altzarien mantenua, ondasunen administrazioa eta zerbitzu orokorren funtzionamendu egokia. Artxiboko dokumentuak gordetzeaz eta sailkatzeaz arduratuko da eta, bere garaian, Barrutiko Idazkaritzara helaraziko ditu eskatutako txostenak.*

Elkartea eta Anaidia

D 21

62. Tokiko elkarte bakoitzak, Barrutiko beste elkarteekin batera, Anaidi osoaren zati bat osatzen du. Beste elkarteekin elkartasun-loturak lantzen ditu, harreman maitekorrak eta senide-laguntza alor guztietan. Salletar Familiako beste kideekin ere abegitsu da.

62.1 *Anaiek parte hartzen dute Barrutiko bizitzan eta gertakizunetan. Gauzatu egiten dituzte Barrutiko Kapituluak eta Barrutiko arduradunek emandako arauak eta orientabideak.*

62.2 *Anai Ikuslariak elkarteari egiten dion ikustaldia da elkartearen barne-bizitza eta apostolutza-konpromisoak ebaluatzeko unerik egokiena, eta gainera Barrutiarekiko eta Anaidiarekiko elkartasuna sakontzeko.*

62.3 *Elkarteak arreta berezia ematen die Barrutiak, Eskualdeak eta Anaidiaren Zentroak zabaltzen dituzten zirkularrei eta gainerako dokumentuei. Anaiek beren gogoeta, elkarrizketa eta otoitzerako gai egiten dituzte.*

PC 13

62.4 *Sektore aberatsagotan bizi diren Anaiak arretatsu agertzen dira egoera larriei aurre egiten dieten Anaidiko sektoreekin, eta gogo onez partekatzen dituzte haiekin baliabide ezberdinak.*

5. KAPITULUA

ANAIEN BIZITZA ESPIRITUALA

Behartsuei emanik bizi diren Anaientzako espiritualtasuna

TB 16, 1,4
IO 43

63. La Salleko Joan Bautistarentzat behartsuen kristau hezkuntza Jainkoaren Egintza da eta Espiritu Santuak gidatutako gizonek burutu behar dute. Gonbidatu egin zituen Anaiak beren bizitza bateratzera: “Ez ezazue bereizketarik egin zuen bizierako zereginen eta zuen salbamen- eta perfekzio-zereginaren artean”.

Bere ministerioan eta elkarte-bizitzan aurkitzen dituen erronken aurrean, Anaiak Jainkoaren gonbidapena ikusten du Harekiko, Anaietikiko eta bere esku jarriak direnekiko elkertasunean sakondu dezan. Anaidia, horrela, Jainkoaren presentziaren oroitzapen bizia bihurtzen da hezkuntzaren munduan.

Jainkoaren hitza eta fede-espirtua

VC 85
k 662
JO 96,3
JO 192
AO 2

64. Mundu plural eta, toki askotan, sekularizatu honetan, Anaiak Jainkoaren Hitzarekin eguneroko harremanaren premia sentitzen dute. Hitz hori da beren bizi osoa elikatzen duena eta laguntzen diena, pertsonak, gertakizunak eta mundua Jainkoaren egitasmoaren erlazioan ulertzen.

Fede-espirituak Jainkoaren gonbidapena jasotzen erakusten die, Hura hurkoarengan eta beren bizitza osatzen duen guztian maitatzeko eta zerbitzatzeko.

Fundatzailearen gonbidapenari jarraituz, Anaiek Jesu Kristo ikusten dute pobreengan eta haiengan gurtzen dute.

AO 27,1
KEG 2, 2, 23
KEG 10, 3,
11

64.1 *“Gogoratu gaitezen Jaungoikoaren aurrean gaudela” deian eta “Bizi bedi Jesus gure bihotzetan! Beti!” otoitzean, Jainko Hirutasunaren etengabeko presentziaren segurtasuna aurkitzen dute Anaiek eta, aldi berean, Jesu Kristorengan, haren maitasunaren bitartekari izateko deia.*

JO 195-196
GMA 7

65. Anaiek Jesu Kristo kontenplazten dute, haren bizian partaide izateko eta Aitarekiko elkartasun estuan eta haren borondatearekiko abandonuan sartzeko. Horrela, haien baitan den Jesu Kristoren antzeko egiten dira gero eta gehiago. Eta hark gai egiten ditu, haren “enbaxadore” bezala hura ordezkatzeko eta haren berri emateko beren ministerioan aurkitzen dituztenei.

TB 13

65.1 *Barnetasunezko gizonak izatera gonbidatzen dituen Fundatzailearen deiari adi, Anaiek beren bizitza espiritualak sakontasunean bizitzeko ardura dute, arreta berezia emanaz otoitz pertsonalari eta isiltasun-uneak bilatzeari. Azalkeari eta barreiatzera eramaten duen guztia saihesten*

saiatzen dira, bereziki komunikazio-teknologiak modu arduratsuan erabiliz.

VC 44
GI 5
GI 7

65.2 Adineko Anaiak, Fundatzailearen etsenpluari jarraituz, ohartzen dira existentziaren etapa berri bat ari direla bizitzen. Jaunak dei egiten die Anaidiaren misioan pozez eta modu berri batean parte hartzera, beren ahalbideen arabera.

Anaien otoitza

Jn 14,23
Lk 11,1
Erm 8,15-
16.26-27
GMA
IO 62,2-3

66. Otoitza, Anaiek Aitarengandik, Semearengandik eta Espiritu Santuarengandik jasotzen duten dohaina da, beste ezer baino lehen. Anaiei dagokie haien eguna betetzen duen guztian abegi egitea, haiengan sor dadin, erantzun gisa, gorespena edo esker-egintza, erregua edo barkamena eskatzea. “Jauna, erakutsiezaguzu otoitz egiten”, diote etengabe.

PC 6,2
k 663 §3
JO 159,1
D 9-11

67. Jainkoaren Hitzan, liturgian eta ministeriotik, Elizatik eta mundutik datozkien deietan aurkitzen dute Anaiek beren otoitzaren iturri nagusia.

GO 198,1

68. Anaidiaren egintza Jainkoaren Egintza da: otoitza eta apostolutza banaezinak dira. Anaiek otoitzera eramaten dute beren ministerioa den guztia. Jesu Kristorekin elkartasunean aurkitzen dute barne-askatasuna, grazia eta misioak eskatzen duen bereizmen espiritual.

Haien erantzukizun profesionalak edozein izanda ere, Anaiak behar adina denbora emango diote otoitzari. Horrela aitortzen dute beren lanaren arrakasta Jainkoaren eskuetan dagoela. Ikuspegi honek aske uzten ditu lanik zailenak ere eskuza-baltasunez, bereizmenez eta barneko bakez egiteko.

Erm 13,14
k 663 §§2.3
AO 4. kap
GMA
IO 33,1
JO 78,1
JO 129,2
JO 159,2
GO 198,1

69. Anaiak biziki maitatu behar dute gogamen-otoitza eta “eguneroko jardunetako lehenengo eta nagusitza” hartu.

Gogamen-otoitzean Jesu Kristorekin bat egiten dute haren misterio, bertute eta irakaspenetan. Horrela etengabe dira deituak Jesu Kristoren espiritua eta bihotza bere egitera eta haren presentzian bizitzera egunean zehar.

Gogamen-otoitzak bizitu egiten du Anaien ministerioaren esparru bakoitza, eta Jainkoaren bedeinkapena erakartzen du haien jarduera guztien gainera eta haien ardurapean daudenengana. Horrela haiekin partekatzen dute beren otoitzaren fruitua.

k 664
GO 205,1
TB 14,8

70. Eguneroko azterketan, Anaiak Jainkoaren maitasunezko ekintzaz jabetzen dira eta beren erantzunaren kalitatea sendotzen dute. Ariketa honetan beren hazkuntza espiritualerako beharrezko laguntza aurkitzen dute.

Ibilbide espiritualak elkartean

SBE 39-40
NMI 43
BF

71. Hirutasun Santuari sagaraturik, Anaiak asoziatuak bizi dira misiorako.

Elkartean bizi duten anaitasunezko bizitza Espiritu Santuaren dohaina da, norbere baitarako bizimodua gainditzera daramana. Dohain hau onartuz, elkartek elkartasun-espirtualtasuna garatzen du.

Anaiek, fedean eta maitasunean onartzen dituzte beraiekin bizitzera Jainkoak deitu dituenak. Elkarte-bizitzaren erronkak Espirituaren gonbidapen dira haientzat, maitasunean, ulermenean eta barkamenean hazteko.

IO 74,2

72. Elkartearen batasunak etengabeko konbertsio-ahalegina eskatzen duela onartuta, elkarrean bizitzan aktiboki presente izanik, Anaiak beren bizitza espirtuala antolatzen dute eta berau sakontzen saiatzen dira. Horrela fedean hazten laguntzen diote elkarri.

k 663 §5
TB 14,12

72.1 *Aldian-aldian, eta batik bat urteroko gogojardunetan, Anaiak beren bizitza berrikusten dute Ebanjelioaren argitan.*

VC 95
k 630
§§1.2.5
k 664

72.2 *Anaiak sarritan hurbiltzen dira adiskidetzaren sakramentuan Jesu Kristorengana. Haren barkamena jasotzen dute eta harengandik ikasten dute barkatzen.*

VC 95
k 630 §1

72.3 *Anaiak bizitza osoan zehar gonbidaturik daude laguntasun espiritualaz baliatzera.*

72.4 *Anaiek, beren zereginak antolatzerakoan, ikasketa erlijiosoer eta irakurketa espiritualari eman behar zaien garrantzia eman ahal izateko moduan egingo dute.*

SC 84
VC 95
SBE 14
k 663 §3
kk 1173-
1175
D 20,9

73. *Anaiak goizez eta arratsaldean biltzen dira, gutxienez, Orduen Liturgia ospatzeko, Elizaren etengabeko gorespen eta erreguarekin bat eginik. Elkartearen bizitza adierazten duten beste otoitz-mota batzuk ere antola ditzakete.*

VC 93
VC 94
SBE 16
JO 159,1

73.1 *Anaiek erregulartasunez partekatzen dute Jainkoaren Hitzak: honek argitzen du haien bizitza eta inspiratzen haien misioa.*

73.2 *Anaiak saiatzen dira beren elkartearen bizitza espiritualaren lekuko egiten. Pozik hartzen dituzte elkartearen otoitzean beraiekin bat egin nahi dutenak eta, orduan, haien presentzia kontuan hartuta antolatzen dute otoitzaldia. Prest daude otoitz egiten ikasi nahi duten pertsonerik gogo onez laguntzeko.*

k 608
k 663 §2

73.3 *Sakramentu Guztiz Santua gordetzen den kapera da elkarte-otoitzerako toki pribilegiatua. Anaiek bertan ematen dituzte adorazio une pertsonalak.*

1 Ko 11,26
 SCar 81
 k 663 §2
 k 897
 k 899
 D 18,7
 D 20,10

74. Anaiak aitortzen dute beren santutzearen, beren batasunaren hazkundearen eta beren ministerioaren bizitasunaren iturburu nagusia Eukaristia dela, Jesu Kristorekiko eta haren pazko misterioarekiko elkartasuna. Ahal izanez gero, egunero hartzen dute parte Eukaristian.

***74.1** Elkarte-egitasmoak aurreikusten ditu eukaristi ospakizuna era pertsonalizatuagoan eta jai-giro handiagoan ospatua izango den zenbait egokiera. Meza ospatzea ezinezkoa den egunetarako eukaristiaren inguruko ospakizunak ere aurreikusten ditu.*

***74.2** Tokiko Elizaren partaide direnez, ahal duten neurrian hartzen dute parte Anaiak haren bizitzan.*

LG 69
 k 663 §4
 B 1
 JO 150,3

75. Anaien bizitza espirituala Anaidiko debozio tradizionalekin ere elikatzen da. Anaiak jaiera berezia diote Maria Jainkoaren Amari, zeinari La Salleko Joan Bautistak sagaratu zion bere Anaidia. Harengandik ikasten dute benetako dizipuluaren ezaugarria den Espirituarekiko otzantasuna. Haren erabateko “bai” hartan, beraien sagarapenaren eredia ikusten dute eta Jaunarengan abandonatu denaren testigantza.

Anaiak beren bizitza osorako eredia aurkitzen dute san Joserengan, izan ere Jesusen giza hezkuntzaren bitartez hartu baitzuen parte salbamen-egintzan. Laguntza eskatzen diote, gogoan izanik La Salleko san Joan Bautistak haren babespean jarri zuela Anaidia.

k 663,4
JO 151,3
D 53,3

75.1 *Elizaren gomendioei erne eta Anaidiaren tradizioei leial izanik, Anaiek egunero ohoratzen dute Ama Birjina, bakarka nahiz elkartean, arrosarioa errezatuz edota Elizaren orientabideekin ados dagoen Mariaren jaierazko beste jarduera baten bitartez..*

D 53, 3

76. La Salleko san Joan Bautistari, Fundatzaile eta espiritu-maisuari zor dioten ohorea eta maitasuna ematen diote. Haren idaztiez eta haren bizi-ikasgaiez asebetetzen dira. Ingurukoei ezagutzera ematen saiatzen dira eta hari jarraitzera dei egiten, maisuen Zaindari santua denez. Elizari zion maitasunean imitatzen dute eta gizakiei emana izatean.

Gogoan dituzte Anaidiko Santu eta Dohatsuak, eta haien bitartekotzara jotzen dute.

AO 23
JO 185

77. Anaiek zintzotasunez gordetzen dute hildako Anaien oroitzapena, batez ere ezagutu eta maitatu izan dituztenena. Otoitzean eta Eukaristian gogoratzen dituzte eta horrela azaltzen dute haiekiko elkartasuna.

6. KAPITULUA

ANAIEN FORMAIZIOA

ANAIA IZAN, BIZITZA OSORAKO IBILBIDEA

Fede-hazkuntza eta laguntasuna

CL 7, 169
CL 8, 28-29

78. Jainkoaren gidaritzapean, “konpromisotik konpromisora”, La Salleko Joan Bautistak etengabeko fede-hazkuntzako ibilbide bihurtu zuen bere bizitza, deien eta hausturen erritmoan. Anaiei ere, beren bokazioan haz zitezen eta gazteekiko misioa emankorra izan zedin, kalitatezko laguntasuna segurtatu zien.

Lk 4,16-19
VC 82
CL 7, 222;
325s

79. Jesusi jarraituz eta Fundatzailearen antzera, Anaiek aurre egiten diete beren garapen pertsonal eta elkartekoari, intelektual eta espiritualari pobreen Jainkoarengana progresiboki bihurtzearen argitan.

Mt 4,18-22
Lk 19,1-10
Jn 4,1-42
PC 18
VC 17

80. Bokazio oro Jainkoarekiko topaketa pertsonalaren misterioan sustraitzen da eta haren deiek erantzun askeak sortzen dituzte.

FOIE 8-9

Fedearen eraginez, Anaiak badaki bere existentzia Jainkoarekiko elkarrizketa dela, leialtasunean etengabe hazarazten diona.

Horrela, Jainkoaren eguneroko presentziarekin topo egiten du bere misioan, sagarapenean eta elkartean.

VC 67

80.1 *Laguntasun edo segimendu pertsonal eta elkartekoak lagundu egiten dio Anaiari bere bokazioaren alderdi osagarriak integratzen. Laguntasun honek arreta berezia eskaini behar die norberaren heldutasun afektibo, intelektual, moral eta erlijiosora daramaten prozesu ezberdinei.*

k 661
VC 71
FOIE 29
FOIE 67

80.2 *Anaia bakoitza da bere formazioaren lehen arduraduna.*

Formazio-egitasmo pertsonal bat egitera gonbidatua dago, bere bokazioa betetasun handiagoz bizitzen laguntzeko.

Formazio iraunkor honek bizitzako dimentsio guztiak hartzen ditu.

SBE 43
FOIE 26

81. Elkartea, gazteen hezkuntza-zerbitzurako, batik bat pobreenerako, Jainkoak bildua, elkarrizketa-gune eta Anaien etxe dena, Anaien formazioaren ingurunea, subjektua eta eragilea da.

Elkartean elkarri laguntzen diote giza mailan eta espiritualki hazten.

Asoziazio-prozesu horri esker, beren bokazioa garatzen dute eta Anaidiarekiko pertenenntzi zentzua sakontzen.

81.1 *Elkarreak plan eraginkor eta etengabe bat burutzen du bere formaziorako. Eta elkar-*

egitasmoaren zati gisa ebaluatzen du.

81.2 *Anaia guztien formazioaren arduradun Barrutia da beraien bizitzako etapa ezberdinetan.*

Anaidiaren erantzukizuna Anaiaren formazioan

k 659
k 661
Kristogandik
abiatuz 15

82. Anaiburuek eta elkarteek eskura jartzen dizkiote Anaia bakoitzari bere formazio espiritual, teologiko, eta kateketikoa aurrera eramateko eta bere gaitasun profesionala eguneratuta edukitzeko bizi-baldintzak eta baliabideak.

k 659 §2
FOIE 70

82.1 *Anaien premiei erantzuteko, Eskualde eta Barrutietako arduradunek berriztapen pertsonalerako programa egokituren bat ezartzen dute, Anaia helduei zuzendua batik bat.*

Erretirora hurbiltzen direnei, berriztatzeko eta gaitasun berriak eskuratzeko baliabideak eskaintzen dizkiete.

FOIE 29

83. Bizitza osoan zehar, eta bereziki betirako profesaren ondorengo lehen urte erabakigarrietan, Anaiak bere bokazioan hazi egiten dira norberaren formazio iraunkorraren arduradun izanik.

83.1 *Anaiburuek behar diren baliabideak hartzen dituzte Anaia kualifikatu eta adituak formazio iraunkorraren animatzaile gisa konprometi daitezten.*

83.2 *Arduradunek aldizka ebaluatzen dituzte*

*formazio-programak eta beren ardurapeko elkar-
teetan burutzen diren ekimenak; baita Anaia
bakoitzak bere berriztapenean duen parte-hartze
eraginkorra ere.*

83.3 *Anaiei behar duten laguntza espiritual
eskaintzeko asmotan, Barrutiko arduradunek Anai
Zuzendariei eta laguntasun pertsonalaren eskain-
tzan sartuago direnei, formazio egokia emateaz
arduratzen dira.*

83.4 *Anaiburu Orokorra eta bere Kontseilua
formazio iraunkorreko programak sustatzeaz
arduratzen dira Anaidian, formatzaileen presta-
kuntzari begira batik bat. Eta ziurtatuko dute giza
eta diru-baliabide urriko Barrutiek ere esku hartu
ahal izan dezatela Anaidian antolatzen diren
berriztapen-programetan.*

VC 71
VC 98

83.5 *Anaidiaren Zentroaren berariazko zerbitzu
gisa, Nazioarteko Salletar Zentroak (C.I.L.) Anai-
diaren batasun biziari eta haren biziberritzeari
lagundu nahi dio, kultura ezberdinak kontuan
hartuz. Horregatik, bertan parte hartzen duten
Anaien berriztapen espiritualak bultzatzen du eta
Anaidian erantzukizuneko eginkizunak betetzera
deituak izango direnen prestakuntza sustatzen.*

VC 71
ILF 7-8

83.6 *Anaidiaren Zentroak sustatu eta antolatu
egiten ditu Fundatzaileari eta bere pentsamen-*

duari buruzko ikerketak, haren obraren garapenari buruzkoak historian zehar eta gaur egungo Anaidiaren hezkuntza- eta espiritu-jarduerari buruzkoak ere. Salletar mezuaren ikerketari, itzulpenari eta hedapenari ekonomikoki laguntzen die.

ILF 8

83.7 *Tokiko Elizak edo beste erakundek antolatutako formazio-programez ere baliatzen dira Anaiak.*

Bokazioen pastoralgintza

Mt 9,37-38
Erm 12,4-5
LG V. kap
k 233 §1
44. KO 5.
kap

84. Jainkoaren herri osoa da Elizan bokazioak sustatzearen erantzule. Anaiak ezagutzera ematen dute salletar karisma, beraien bokazioaren garrantzia azalduz eta salletar bokazio bakoitzaren berezitasuna. Jaunaren bitarteko direnez, prest eta gogotsu agertzen dira salletar bokazio ezberdinetara deituak sentitzen diren gazteak eta helduak gonbidatzeko eta laguntasuna eskaintzeko.

44 KO 5. kap

84.1 *Anaien elkarte bakoitzak aztertu egiten du bere testigantza ebanjelikoaren balioa eta sortzearen diren bokazioak ernarazi, onartu eta laguntasuna eskaintzeko duen gaitasuna. Era berean, hezkuntza eta kristau elkarte osoa konprometitzen da bokazioen sustapenean.*

44 KO 5. kap

84.2 *Bokazioen pastoralgintza, gazteak eta helduak parte hartzen duten obren eta mugimenduen hezkuntza-kalitatean sostengatzen da,*

eskuarki. Bokazioen kulturaren sustapenak lagundu egiten dio pertsona bakoitzari bere dohainez jabetzen eta berauek besteen zerbitzuan jartzera gonbidatzen du.

84.3 *Pobreekiko boluntariora-, txertatze- eta konprometitze-esperientziek bokazio baten balioa eta besteen aldeko zerbitzuarena ulertzeko ahalbidea eskaintzen diete gazteei.*

Mt 9,37
GO 207,3

85. “Egin otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara”, Kristoren hitzok, dei egiten diete Anaiei, bokazioen pastoralgintza ezartzeko eta garatzeko otoitza oinarritzotzat hartzera

“Eska iezaiozue zuen Anaidia haz dezan eta egunetik egunera fruituak emanaraz diezaion” Fundatzailearen gomendioak premiatu egiten ditu Anaiak bokazioen aldeko otoitza antolatzen elkartean, ikastetxean, ikasleen guraso, irakasle, lagun eta gazteen beraien artean.

Jn 1,39
Heb 13,1-2
k 673

86. Bokazioen pastoralgintza Kristau Eskoletako Anaien bizitza partekatzen gonbidapen eraginkorra izango bada, premiazkoa da:

- Anaiak beren bizitzaz, gizakien arteko Jainkoaren presentziaren testigantza ematea, haren Espirituaren indar askatzailearena, eta haren maitasunaren samurtasunarena;

- elkarrekin, guztiz irekiak eta abegitsuak izanik, modu

anaikor eta apostolikoan bizitzea “etorri eta ikusi” Ebanjelioko hitzak;

- Anaidiak egiatan lan egitea bere berriztapenean, ebanjelizatu behar dituen gazteen munduaren premia larrienei erantzunez.

FORMAZIOAREN HASIERAKO ETAPAK

Bokazioen abegi ona eta laguntasuna

k 597
FOIE 2
D 15,1

87. Beren bokazioaren bereizpena egin eta heldutasunera iristeko Anaidira etortzen direnek laguntzaileak eta erreferentzi puntuak aurkitu behar dituzte. Izan ere, kandidatuen formazioa da Anaidiaren kezkarik handienetakoa. Barruti eta Eskualde bakoitza, Anaidiaren Zentroarekin elkarrizketan, programa koherente bat prestatzen eta gauzatzen saiatuko da, Anai bizitzarako sarbide-etapa guztietarako. Koherentzia horrek, giza garapenaren, sarbide espiritualaren, ikasketen eta Anaiaren bizitzaren eta ministerioaren esperientzia praktikoaren arteko oreka egokia errazten du.

FOIE 30-34
D 14,2

88. Anai guztiek, batez ere formazioaz arduratzen direnek kontuan hartzen dute kandidatuen adina, kultura, jatorri soziala, beren formazio erlijioso, intelektual eta profesionalaren maila, eta Elizarekiko eta Anaidiarekiko duten esperientzia.

88.1 *Anai bokazioa nazioarte testuinguruan bizi ohi da. Honek zera eskatzen du, formazioko zenbait etapa eskualdetako programetan egitea, hizkuntza eta kultura ezberdinetako Anaiak bilduz. Beste kulturekiko irekitasunak bakoitzari eskatuko dio, era berean, bere bokazioaren oinarritzko dimentsioak, ministerioa gauzatuko duen testuinguruan adieraztea.*

FOIE 6

89. Kandidatu bat onartzean, hari bere bizitza-egitasmoa eta bokazioa burutzeko behar dituen baliabideak eskuratzerako konprometitzen da Anaidia, eta kristau hazkunde prozesu pertsonalean eta Anaidian progresiboki sartzen laguntzera. Formatzailen elkarbizitzak, bere kalitateaz, erlijioso- bizitzaren egiazkotasunaren zeinu izan behar du bertan hasten ari diren kandidatuentzat eta bitarteko egokia aurrera egin dezaten. Kandidatu bakoitza bere aberastasunekin eta mugekin konprometitzen da bere formazioan, eta Espiritu Santuarenganako prestutasun handiz.

D 16-27

90. Anai bizitzarako sarbideak unitate bat osatzen du nobiziatu aurreko prestaketa garaitik betiko profesu bitartean. Hau da bere xedea: kandidatuei Anaidiaren fede eta apostolu-gar espiritu propioa bereganatzen laguntzea eta bizitzan Jesu Kristorekin topo egiten eta hari jarraitzen laguntzea. Sarbide honek sostengatzen dituzte beren heldutasun-bidean eta bokazio pertsonalaren bereizimenean, eta prestatu egiten ditu bizitza

osoa konprometi dezaten fedearen hazkuntza-ibilbi-dean eta Anaidiarekiko integrazio progresiboan.

k 597 §2
FOIE 42
FOIE 51

90.1 *Formazio-etapek norberaren erritmoa errespetatzen dute. Barruti bakoitza arduratzen da etapa bakoitzaren iraupena nahikoa izan dadin, presazko arrazoiengatik laburtu gabe. Kode kanonikoak eta Anaidiaren arauak, bereziki Formazioaren Gidak, bermatu egiten dute kandidatu bakoitzaren prozesuaren askatasuna eta egiazkotasuna.*

k 660 §1

90. 2 *Kandidatuen ikasketa-programak agintari akademikoek nahiz eklesiastikoek onartutako programen arabera ezartzen dira. Haien helburua erlijioso hezitzaile gisa behar duten gaitasuna eskuratzea da. Teologi, katekesi eta pedagogi ikasketak ezinbestekoak dira, kandidatuari nahiz Anaia gazteari bere fedearen oinarriak eta misiorako gaitasunak sendotzen laguntzeko.*

90.3 *Elkarrizketa pertsonalak funtsezko zeregina betetzen du kandidatu bakoitzaren laguntasun edo segimenduan eta bere heldutasun-prozesuaren ebaluazioan.*

Postulantadua

k 597
FOIE 42

91. Postulantadua formazioaren hasierako etapa da nobiziatuaren aurretik doana eta nobiziatuak prestatzen duena. Postulantaduak kandidatuari baliabideak eskaintzen dizkio heldutasun pertsonalaren prozesuan aurrera egiteko eta fedea aberasteko, Anai bizitarako bokazioaren egiazkotasuna bereizteko, nobiziatuan sartzeko erabakia sendotzeko, Anaidiko bizitza sagaratu, elkarteko eta apostolikoan lehenengo esperientzia ahalbideratuz.

***91.1** Postulantaduak bere programa berezia du, nobiziatukoa ez dena. Ahal den neurrian, kandidatuaren kultur ingurunean egiten da.*

***91.2** Postulantaduan kristau bizitarako sarbideak eta formazioak arreta berezia izango dute postulanteari bere fede-bizitza sakontzen laguntzeko.*

***91.3** Behartsuen hezkuntza-zerbitzurako asoziazioan izandako bizi- eta lan-esperientzia guztiz funtsezkoa da postulantearen bokazio-bereizmenean.*

Nobiziatua

k 646

92. Nobiziatua da Anaiaren erlijioso-bizitarako sarbide-esperientzia pribilegiatua. Norberaren erritmoarekiko errespetu handiz, formazioaren animatzaileek gonbidatu egiten dituzte nobizioak La Salleko san Joan

Bautistaren dizipuluen oinarrizko jarrera espiritualean progresiboki sartzera: Jainkoarengan nor bere burua abandonatzera Jesu Kristori jarraituz, guztientzat irekita dagoen ebanjelizazio- eta hezkuntza-zerbitzu komunitario baterako, pobreak eta gazteak lehenetsiz betiere.

92.1 *Barruti-arteko nobiziatuaren kasuan, haren estatutuek zehaztuko dute Anai Ikuslariak nola gauzatzen duten beren aginpidea.*

kk 641-645

93. Nobiziatuan baliotasunez onartua izateko, kandidatuak hamazazpi urte beteak behar ditu izan eta eragozpen kanoniko orotarik libre egon. Zilegitasunez onartua izateko, zuzenbide komunak eskatzen dituen beste baldintzak bete behar ditu. Kandidatuak onartua izatea non eskatu, Barruti hartako Anai Ikuslariari dagokio onarpena.

k 641

93.1 *Kandidatuak, idatziz eta arduradunekin elkarrizketan, adierazten ditu Anaidian sartzeko arrazoiak. Eskaera idatzi hau Anai Ikuslariari helarazten zaio, eta honek Barrutiko Kontseiluaren iritzia entzun ondoren erabakiko du.*

Ordo prof.
relig. 1970
(1-13 zk.)

93.2 *Zeremonia berezi batez adieraziko da nobiziatuaren hasiera. Bertan kandidatuak Anaidian sartzearen ezaugarri batzuk jasoko ditu, adibidez, abitu erlijiosoa, Araudia nahiz Biblia. Halako zeremoniak kandidatuaren konpromisoa nabarmendu nahi du, Anai bizitzan Jesu Kristori jarraitzeko asmoa; eta aldi berean, Anaidiko*

senidetasunezko elkarteak kide berriari egiten dion abegia.

k 652

93.3 *Nobiziatuko programak lagundu egin behar die nobizioei nork bere burua hobeto ezagutzen, gaur egungo mundua eta Anaidia hobeto ulertzen, eta beraien kulturaren hobeto kokatzen. Horretarako nobizioaren asmoa izango da:*

- 1. erlijioso-bizitzaren izaera, xedea eta historia ezagutzea;*
- 2. Anaiaren bokazio berezia modu egokian integratzea salbamenaren historian, Elizaren zerbitzuan eta salletar bokazioen osagarritasunean;*
- 3. Jesu Kristorekin topaketa pertsonalagoan sarbidea egitea;*
- 4. otoitzean, aszesian eta apostolutzan formatzea, ekarpen biblikoak, liturgikoak, teologikoak eta pastoralak kontuan hartuz;*
- 5. Anaiaren biziera ezagutzea Anaidiaren eta honen misioaren ikasketaren bitartez, honen doktrinan eta, batez ere, La Salleko san Joan Bautistaren funtsezko inspirazioan sarbidea eginez;*
- 6. kultura ezberdinenganako jarrera positiboa garatzea eta Ebanjelioaren inkulturatze-esperientzia ezberdinak ezagutzea.*

Os 2,16
k 652
D 16-27

93.4 *Nobiziatuko helburuak lortzeko barnebiltzeko giro lagungarria behar da, otoitzari, gogoetari eta jasotako irakatsien bereganatzeari emandako den-*

boraldi luzeak, elkarte-bizitzarako sarbide praktikoa eta apostolutza-konpromisorako denbora zentzuzkoa. Nobiziatuak sintesirako guneak eskaintzen ditu, nobizioak Anai bizitzaren dimentsio osagarriak integratzeko ibilbidea egiten jarrai dezan.

k 648 §2
k 650 §1
BF

93.5 *Kontuan hartuz behartsuen hezkuntza-zerbitzurako asoziazioa dela Anaien lehen botoa, nobizioei esperientzia apostoliko progresiboak proposatuko zaizkie norberaren gaitasunen arabera, eta etengabe ebaluatuko dira laguntasuna eskaintzen dienekin.*

k 650

93.6 *Laguntasun edo segimendu espiritual pertsonala oinarrizkoa da bizitza sagaraturako sarbidean. Nobiziatuko Anai Zuzendariak honen garrantzia azaltzen du. Bera da lehen arduraduna, nahiz eta nobizioek askatasunez beste pertsona adituren batengana jotzerik ahal izan.*

k 650 §1

93.7 *Zuzenbide kanonikoan aurreikusitako nobiziatuko formazioko baldintza orokorrek, nolabaiteko malgutasuna uzten dute berauek indarrean jartzerakoan. Anaiburu Orokorrak baiesten du nobiziatuko programa orokorra. Gero, etortzen diren nobizioei egokitzen zaie haien parte-hartze eraginkor eta etengabekoarekin.*

k 647 §2
k 648
k 649 §1

94. *Nobiziatua balioduna izateko, horretarako propio den etxean egin behar da, eta gutxienez, hamabi hilabete iraun behar du, hauek gehienez bi urtetan*

banaturik. Nobiziatuko etxetik kanpo hiru hilabete egoteak, jarraian nahiz banatuta, baliorik gabe uzten du nobiziatua. Hamabost egunetik gorako absentzia ordezkatu egin beharko da.

k 647 §1 **94.1** *Nobiziatua irekitzeko nahiz tokiz aldatzeko Kontseilu Orokorren onespena behar da beti eta Anaiburuaren baiespen idatzia.*

k 647 §3 **95.** Anai Ikuslariak denboraldi jakin batzuetan berak izendatutako etxe batean bizitzeko baimena eman diezaioke nobizioen taldeari.

k 647 §2 **96.** Anaiburu Orokorrek, bere Kontseiluaren onespenez, baimena eman dezake kandidatu batek nobiziatua baliotasunez Anaidiko beste elkarte batean egin dezan, horretarako propio izendatutako Anaia profesadun baten agintepean.

k 650 §2
k 651 **97.** Nobizioen Zuzendari-kargua betirako botoak gutxienez bost urte eginik dituen Anaia baten ardurapean ipiniko da, eskuarki, eta zeregin horretarako guztiz liberaturik egongo da. Ahal den neurrian, lankide bat edo batzuk izango ditu.

k 653 §1 **97.1** *Bereizmen-zeregina betetzerakoan, gerta liteke Anai Zuzendariak nobizioen bat bidali behar izatea. Halere, erabaki hori hartu beharren aurkituko balitz, ez luke hartuko aurretik nobizioarekin hitz egin gabe, lankideei aholkua eskatu eta Anai Ikuslariarekin harremanetan jarri gabe.*

Botoak egitea

k 653 §2
k 649 §2
k 656

98. Nobiziatua bukatzean, eta Zuzenbide kanonikoak eskatzen dituen baldintzak beterik, nobizioa aldi baterako profesarako onartua izango da, gai dela irizten bazaio; horrela ez bada, bidalia izango da. Haren gaitasunaz zalantzarik balego, Anai Ikuslariak luza dezake froga-garaia berak erabakiko duen epe berri batez, baina ez sei hilabete baino gehiago.

k 653 §2
k 656, 3°

98.1 *Nobiziatua bukatu baino bi hilabete lehenago beranduenez, nobizioek askatasunez zuzentzen diote beren Anai Ikuslariari lehenengo botoak egiteko eskaera idatzia. Anai Zuzendariak probetxugarriak gerta lekizkiokeen kanpo-barrutiari buruzko txostenak bidaliko dizkio Anai Ikuslariari.*

k 656-658
k 689

98.2 *Botoak egitea Zuzenbide kanonikoko arauen eta ondorengo xedapen hauen arabera eratzten da:*

- 1. Anai Ikuslariari dagokio botoetara onartzea.*
- 2. Botoak egiteko kandidatuaren eskaera bakoitza Onarpen Kapituluak aztertuko du. Onarpen Kapitulu hau betirako botoak dituzten Anaiek bakarrik osatuko dute Barrutiko Kapituluak erabakitakoaren arabera. Lehenengo botoak direnean, gutxienez nobiziatuko arduradunetako bat gonbidatua izango da bertan parte har dezan. Betirako profesia denean, Onarpen Kapituluaren parte hartu beharko dute betirako profesia duten*

Barrutiko Kontseiluko kideak. Kapitulua iritzi-botoa emango du, betirako profesaren kasuan salbu, orduan botoa erabakigarria izango da.

3. Anai Ikuslariak Onarpen Kapituluko kideekin hitz egitera gonbidatzen du kandidatua, bere erabakiaren arrazoiak hobeto ezagutzera eman diezazkien. Kandidatuak, nahiago badu, Anai Ikuslariari edo Onarpen Kapituluko kideei idatzitako gutun baten bidez eman ditzake, besterik gabe, bere adierazpenak.

4. Botoetara onartzeko Onarpen Kapitulua garapenean arazo bereziak sortzen direnean edo kandidatua ez denean onartua izan, kandidatua nahiz Anai Ikuslariak azal diezaiokete kasua betiere Anaiburu Orokorrari.

5. Betirako profesaren denean:

- Botazioaren gehiengoa ezezkoa gertatzen bada, Anai Ikuslariak ezingo du botoetarako onarpena eman, baina bai berak bai kandidatua azal diezaiokete kasua betiere Anaiburu Orokorrari.

- Onarpen Kapitulua akta Anaiburu Orokorrari bidali behar zaio, eta bertan Anai Ikuslariak onarpenaren aldeko ala kontrako bere erabakia erantsiko dio. Anaiburu Orokorrak baietsi ala baliogabetu egiten du Anai Ikuslariak hartutako erabakia. Anaiburu Orokorraren berrespena ezinbestekoa da betirako botoen baliotasunerako.

6. Botoak honako hauek jasotzen dituzte: Anaidi osoan, Anaiburu Orokorrak edo bere ordezkariak, Anai Bikario Orokorrak nahiz Kontseilari Orokorretakoren batek; Barrutian, Anai Ikuslariak edo bere ordezkariak.

Aldi baterako botoen garaia

k 659 §1
FOIE 56
FOIE 59

99. Aldi baterako botoen garaia xedea honako hau da: bokazio-hazkunderari eta nobiziatuan hasitako formazioari jarraipena ematea; Anaia gaztearen bizi-ibilbidea leialtasunean sendotzea eta betirako profesarako prestatzea. Beraz, Anaiak arlo profesionalean eta apostoluzan eskatzen diren trebetasunak bereganatu behar ditu, eta elkartean bizitzeko eta bere sagarapena betetasunera eramateko gaitasuna garatu.

k 659 §2
k 600
FOIE 60

99.1 *Barruti edo Eskualde bakoitzean egitura egokiak eta kalitatezkoak ezartzen dira, eskolas-tikatuak edo abegi-elkarteak hain zuzen, Anaia ikasleen premia bereziei erantzungo dieten formazio-prozesuak segurtatzeko.*

SEB 54

99.2 *Elkartea izango da Anaiarentzat etengabeko formaziorako esparrua. Otoitz eta zerbitzu-bizieraren etsenpluak eta senidetasunezko elkarriketak erraztu egiten dute Anaiaren egokitzapena elkar-teko lehen urteetan.*

99.3 *Bere ikasketen hautapenari dagokionez, Anaiak kontuan hartuko ditu Barrutian eta Anai-*

dian ezarritako zerbitzu pastoralaren helburuak. Hautapen hori Anaiaren eta Barrutiko arduradunen arteko elkarrizketan egingo da. Anaidiaren nazio-arteke dimentsioak atzerriko hizkuntza bat gutxienez ikastea eskatzen du.

99.4 *Aldi baterako botoak dituzten Anaiek, Anaidiaren bizitzan esku-hartze hobea izateko aukera izan dezaten, Barrutiko arduradunek neurriak hartuko dituzte Barrutiko gogoeta- eta erabakitze-talde ezberdinetan parte hartu ahal izan dezaten: Kapituluetan, Kontseiluetan, Batzordeetan.*

k 659 §2
k 660 §2

99.5 *Anai Ikuslariak eta Formazio Batzordeak hurbiletik jarraitu behar dute aldi baterako botoen garaia. Hiru dira arreta berezia eskatzen duten etapak:*

1. Nobiziatuaren jarraian datorrena eta Anaia katekista- eta hezitzaile-misiorako prestatu nahi duena, baldin eta prestakuntza hori oraindik egin gabe badu.

2. Lan-elkartean bizitako lehenengo urteak. Urte horietan Barrutiaren eta elkartearen baitako laguntasun-proiektuak ahalbideratu egin behar dio Anaiari bere formazio-ahaleginean jarraitzea. Bere ministerioa, Anaia gisa, misio partekatuaren baitan bizitzen ikasiko du.

3. Betirako profesarako prestakuntza hurbila.

k 655
B 8

99.6 *Betirako profesarako prestatzeko, eta nobiziatuaren amaieraz geroztik, Anaiak aldi baterako botoak egiten dituzte, urtebeteko nahiz bi edo hiru urtetako iraupena dutenak. Barrutiko arduradunei dagokie epea erabakitzea, konpromiso-eskaera egiten duen Anaiarekin ados jarrita.*

k 607 §2
k 657 §1

99.7 *Aldi baterako botoen epe bakoitzaren amaieran, Anaiak botoak berritzea eskatuko dute, betirako botoak eskatu ahal izan eta eskatzen ez badute nahiz askatasunez erretiratzea erabakitzen ez badute.*

Betirako profesia

k 654
BF
D 18,1

100. Betirako profesaren bitartez, Anaiak bizitza guztirako Kristau Eskoletako Anaiekin bat egin eta lagunartean irauteko konpromisoa adierazten du. Fundatzailearen eta lehen Anaien sentimenduak bezalakoak partekatzen ditu, Anaidiaren hasieran asoziatu zireneko sentimendu haien antzekoak.

D 18, 7

101. Behin betirako konpromisoaren izaerak eta garrantziak prestakuntza-baldintza bereziak eskatzen dituzte: giza eta espirituzko heldutasuna, hazkundera fedean, bere Anai ibilbidearen pertsonalizazioa eta bere konpromisoa motibatzen duten balioen estimua.

101.1 *Anai Ikuslariak eta Formazio Batzordeak beste Barruti eta Eskualderekin lankidetzan, behar*

izanez gero, laguntasunerako egitura egokiak antolatzen dituzte, betirako botoak egin baino lehenagoko aldirako eta ondorengo urtetarako.

k 655
k 657
k 658, 2°

102. Anaiak honako baldintzak bete ondoren izan daitezke betirako botoak egitera onartuak: gutxienez hogeita bost urte izatea, horietatik bost gutxienez aldi baterako botoekin Anaidian emanak, eta hiru urtez elkarte batean bizi izana izatea apostolutza-konpromisoren batekin.

k 655
k 657 §2

102.1 Aldi baterako botoen aldia ez daiteke zortzi urtetik gorakoa izan. Halere, egokitzen joko balitz, Anaiburu Orokorrak epe hori luzatzeko baimena eman diezaioke Anaia bati, beste urtebetez gehienez.

Anaidiarekiko leialtasuna

BF
D 53,2

103. Formazio osoan eta bizitza osoan zehar indarturik suertatzen da Anaidiarenganako Anaien leialtasuna, Jesu Kristorenganako etengabeko konbertsioari eta iraunkortasun-botoari esker. Anaia leialtasunaren lekuko da misioan.

k 688
k 691 §1

104. Anaiaren batek pentsa dezake Anaidia uzteko bidezko arrazoiak dituela. Halere, saia bedi otoitzean eta hausnarketa pertsonalean erabaki hori hartzera bultzatzen dioten arrazoiak aztertzen. Laguntasun egokia jaso eta gogoeta serio baten ondoren, Anaidia uzteko nahiko arrazoi dituela bereizten badu

Anaiak, bakean eta Jaunarengan abandonatu denaren espirituan egin dezake eskaera.

kk 688-692
B 1

105. Aldi baterako nahiz betirako botoekin lotutako Anaia batek ezin du bere kabuz Anaidia utzi, aurretik eskumena duenaren dispentsa jaso gabe, hots, Anaiburu Orokorrena, haren Kontseiluaren onespenearekin, aldi baterako profesadunaren kasuan; Aulki Santuarena, betirako profesadun baten kasuan, hara helaraziko baitu eskaera Anaiburu Orokorrak bere iritzi pertsonala eta Kontseiluarena erantsiz.

kk 684-687
kk 694-704

106. Beste Institutu batetara igarotzeko, esklaustroziorako nahiz Anaiditik Anaiaren bat bidaltzeko, Zuzenbide kanonikoko eta Anaidiaren zuzenbide partikularreko arauak beteko dira.

k 702

107. Anaiditik legez irten den Anaiak nahiz legez bidalia izan denak ez dezake ezer eskatu bertan egindako edozein lan dela-eta. Karitateak eta zuzentasunak behartzen dituzte Anaiak, Anaidia uzten dutenekiko betebeharrak ez ahanztera.

Anaidian berriz hartzea

k 690 §1

108. Anaiditik legez irtendako Anaia baten berrartzea Anaiburu Orokorrari dagokio. Ez du hori egingo ez bada bere Kontseiluaren onespenez. Berrartzea eskatzen duen kandidatuak ez du berriro nobiziatua egin behar, baina Anaiburuari dagokio aldi baterako

profesara prestatzeko probaketa egoki batetarako arauak jartzea; baita betirako profesaren aurreko botoen iraupena erabakitzea ere.

BIGARREN ZATIA

**ANAIDIAREN
GOBERNUA**

SARRERA

Ikasleak eztabaidan hasi ziren beren artean, beraietan zein ote zen handiena. Jesusek esan zien: «Herrietako erregeek menpean hartzen dituzte herriak, eta agintedunek “Ongile” izena nahi izaten dute berentzat. Zuek ez jokatu horrela. Zuen artean nagusiena izan bedi gazteenaren pareko, eta agintaria zerbitzariaren pareko. Zein ote da handiago, mahaian dagoena ala zerbitzatzan ari dena? Ez ote mahaian dagoena? Bada, ni zerbitzari bezala nago zuen artean. (Lk 22, 24-27)

Lk 22, 24-27

109. Elkartean bilduta Espirituaren dei pertsonal bati erantzunez, Jainko Hirukoitzari sagaratuta Hari aintza emateko, behartsuen hezkuntza-zerbitzurako botoz asoziatuta, Anaiek, Jesu Kristoren jarraipenean, zerbitzutzat hartzen dute aginpidea.

110. La Salleko Joan Bautistak hasieratik inplikatu zituen “Anaia nagusienak” aholkularitza-, bereizmen-eta erabakitze-prozesuetan. Haren etsenpluari jarrai-

tuz, Anaiak erantzunkidetasun- eta subsidiaritate-
espirituan bizi dute aginpidea. Aginpidea dutenek
erraztu egiten dute Anaien ekimena eta bakoitzaren
erantzukizuna norberari dagokion esparruan.

110.1 *Aginpidean jardun behar duten Anaiak epe
jakin baterako dira izendatuak. Gaur egungo
errealitatea kontuan hartuz dihardute eta, aldi
berean, etorkizunari begira guztien onaren
zerbitzurako.*

110.2 *Anaidiko maila guztietan aginpideren bat
duten Anaiak Espirituaren gidaritzapean arituko
dira Jainkoaren nahiaren bila eta nahi hori
betetzen. Anaien irizpideak ere onartuko dituzte
bitarteko gisa, Jainkoaren egitasmoa elkarrekin
hautemateko.*

110.3 *Elkarri entzutearen, senide-elkarrizketaren
eta elkarte-bereizmenaren prozesua amaitu
ondoren, aginpidea dutenei dagokie beren
erantzukizun guztiak beren gain hartzea,
elkartean, Barrutien eta Anaidiaren onerako
erabakiak hartuz eta beharrezko diren ekimenak
bultzatuz, karismarekiko leialtasunean.*

110.4 *Aginpidea guztion arteko elkartasunaren
zerbitzuan dago. Anaidi osoaren bizitasunaz
arduratzen da, bereziki garatuz osatzen duten
zatietan elkarren arteko menpetasuna.*

110.5 *Aginpideak zaindu egiten du Anaia bakoi-tzaren ardurapean jarritako misioa haren bokazio pertsonalari eta behartsuen hezkuntza-zerbitzurako asoziazioaren premiei dagokiena izan dadin. Aginpi-dean dihardutenak saiatu egiten dira Anaidiaren eliz misioaren kalitatea eta eraginkortasuna garatzen.*

7. KAPITULUA

KAPITULU OROKORRA

Lk 22,25
k 618
k 619
D 53,2

111. Senideen Zerbitzari izan zen Jesu Kristoren jarraipenean, eta Fundatzailearen etsenpluaz irakatsita, Anaiek elkar-tezerbitzutzat hartzen dute aginpidearen funtzioa. Guztien arteko elkartasuna garatu behar du, Anaidiaren bizitasuna, bere misioaren eraginkortasuna eta osatzen duten zatietan elkarren arteko menpetasuna.

k 596 §1
k 631 §§1.2

112. Anaidi osoaren irudira eratu, Kapitulu Orokorra Anaia guztien artean dagoen elkartasunaren adierazpide gorenarekin da Fundatzailearen egunetatik, eta Anaidiaren berezko karismarekiko leialtasun bizia iraunarazten du haien artean.

Kapitulu Orokorra, Lagunarte osoaren arduradunenez, gai da, haren izenean, Anaidiaren bizitzaren aldi aldiko ebaluazioa eta haren egokitze eta berriztapen iraunkorrak egiteko, baita etorkizuneko jardueraren ildo nagusiak ezartzeko ere, eta Anaiburu Orokorra eta Anai Kontseilariak aukeratzeko. Anaidiko erakundeei eta kideei dagokien legez edota administrazio-alorreko beste edozein neurri har dezake.

113. Ohizko Kapitulu Orokorra zazpi urtetan behin egiten da. Normalean Anaiburu Orokorrak bilarazten du.

Zazpi urte betetzean, salbuespenezko egoerek ohizko Kapitulu Orokorra egitea eragozten dutenean, Anaiburu Orokorrak Aulki Santura joko du bere eta Kontseilarien agintaldiaren behin-behineko luzapena eskatzeko.

114. Egoerek eskatuko balute, Anaiburu Orokorrak eta, hala behar izanez gero, Anai Bikario Orokorrak eta, haien faltan, Anai Kontseilari Orokorrek bilaraz dezakete ezohiko Kapitulu Orokor bat, baldin eta erabaki horrek Kontseilarien gehiengoaren baietza lortzen badu botazio sekretuan.

k 631

114.1 *Ohizko Kapitulu Orokorra egin baino bi urtedo aurretik, Anaiburuak Kapituluaren hasieraren gutxi gora-beherako data iragarriko du eta, une berean, haren prestakuntza ziurtatzeko hartutako neurrien berri emango dio Anaidiari.*

Horretarako, Anaiburuak eta bere Kontseiluak prestaketa izeneko Batzorde bat osatuko dute. Honi dagokio Kapituluaren prestaketa aztertzea eta antolatzea.

Batzorde honek egokitzen jotzen dituen informazio guztiak bilduko ditu, bai Anaiengandik, bai Anaidiko zenbait erakundeetatik eta azterketa-talde eta batzorde espezializatuetatik.

k 631 §2

114.2 *Kapitulu Orokorrek jaso egiten ditu salletar misioaren erakunde ezberdinen txostenetako interpelazioak.*

Honako hauek dira Kapitulu Orokorreko kideak: eskubidezkoak batzuk; beste batzuk, Anaiburu Orokorrek eta haren Kontseiluak, hala nahi izanez gero, izendatuak; eta besteak, kopuru handi-goan, Anaidiko Anaia guztiek ordezkaturakoak.

Kapitulu Orokorreko eskubidezko kide dira: Anaiburu Orokorra, Anaiburu Orokor ohiak, Anai Kontseilari Orokorrek eta Idazkari Orokorra.

Bere Kontseiluaren onespenez, Anaiburu Orokorrek beste zenbait ordezkari osagarri izenda dezake, hamar gehienez, Anaidiaren aniztasunaren ordezkapena hobeto ziurtatzearen.

k 631 §2

114.3 *Hautatu beharreko ordezkarien kopurua, deialdi-zirkularraren datan agertzen diren estatistika-datuak kontuan harturik, honela erabakitzen da:*

1. Ordezkarien kopurua Barrutiko Anaien kopuruaren arabera izango da. Kopuru hau Anaiburuak eta bere Kontseiluak finkaturako N zenbakiaren artean zatituko da. Ateratzen den zatiduraren gaineko hurrengo zenbaki osoa da Barrutiko ordezkarien kopurua.

2. Ofizialki eraturako Azpibarrutiek nahiz Ordezkaritzek ordezkari bana hautatzen dute.

3. Anaiburu Orokorrak eta bere Kontseiluak N zenbakia finkatzeko zera dute kontuan: aukeratu-tako ordezkarien kopuruak ez du izan behar Anaidiko Anaien kopuruaren %1a baino txikiagoa, ezta kopuru horren %1,5a baino handiagoa ere.

k 631 §2

115. Deialdi-zirkularraren datan Anaidian profesadun den Anaia oro da hautesle. Deialdi-zirkularraren datan Anaidian betirako boto profesadun den Anaia oro da hautagai.

115.1 *Barruti, Azpibarruti eta Ordezkaritza bakoitzean, Kapituluak edo, honen faltan, Anai Ikuslariak edo Ikuslari Laguntzaileak, bere Kontseiluaren onespenez, dagozkion ordezkaria edo ordezkariak, eta hauen ordezkoak, hautatzeko prozedura-arauak ezartzen ditu. Dena den, kontuan hartuko dituzte ondorengo arau orokor hauek:*

Hautatua izateko, ordezkari batek eman diren boto baliodunen gehiengo absolutua lortu behar du. Hirugarren boto-zenbaketara jo behar izanez gero, aski izango da gehiengo erlatiboa.

Ordezkoak, ordezkarien kopuru berean, beste botazio batean izango dira hautatuak.

Boto-zenbaketen emaitzen akta osoa atzerapenik gabe bidaliko zaie Barrutiko Anaiei eta Idazkaritza Orokorrari.

Aipatutako arauen indargabetze oro Anaiburuaren

*eta haren Kontseiluaren pean jarri behar da baie-
tsia izateko.*

116. Ohizko Kapitulu Orokor baten hasiera-data baino urtebete inguru lehenago, eta bere Kontseiluaren iritzia jaso ondoren, bidaliko du Anaiburuak deialdi-zirkularra.

116.1 *Deialdi-zirkularrean ezagutzera emango dira eskubidezko kideen izenak, eta Barrutietan, Azpibarrutietan eta Ordezkaritzetan hautatu beharko diren ordezkarien kopurua.*

k 631 §2

117. Anaiburu Orokorra da, eskubidez, Kapitulu Orokorren presidentea.

117.1 *Garaia denean, Kapitulu Orokorrek beharrezko zaizkion ofizialak hautatzen ditu. Halere, Anai Idazkari Orokorra da Kapituluko idazkaria.*

k 631 §3

117.2 *Kapitulu Orokorrek dauka bere lanen antolamenduaren erantzukizun osoa. Prestaketa-batzordeak landu izandako iradokizun eta gomendioek, azterketek, lan-egitasmoek eta oinarriko testuek nabarmenki erraz dezakete lan hau.*

117.3 *Anaiburu Orokorrek eta bere Kontseiluak nahiz Kapitulu Orokorrek berak gonbida dezakete zenbait pertsona Kapitulua lanetan parte hartzera, aditu edo aholkulari gisa.*

k 631 §3 **118.** Anaidiko Anaia guztiak gonbidaturik daude ohizko Kapitulu Orokorraren prestaketa-lanetan parte hartzera. Anaia bakoitzak baliagarri iruditzen zaizkion ohar edo txosten sinatuak Anaiburu Orokorrari edo Anai Idazkari Orokorrari bidaltzeko eskubidea du.

k 631 §3
k 633 **118.1** *Kapitulu Orokorrak kontuan hartzen ditu Anaien artean egindako kontsultak, batez ere Kapitulu Orokorrari informazio hobea emateko egin diren Barruti Kapitulu eta Eskualde Asanbladetakoak. Era berean kontuan hartzen ditu elkarteen edo gizabanakoen oharra, egileek behar bezala sinatuak. Ohar horiek Kapitulu Orokorrera nahiz Prestaketa Batzordera edota Anaidiko Idazkaritza Orokorrera bidal daitezke.*

119. Anaiburu Orokorrak jakitera ematen dio Kapitulu Orokorrari berak eta bere Kontseiluak nola eraman duten aurrera beren agintaldia. Txosten honetan Anaidiko Zerbitzu Orokorraren jarduerak ere adierazten dira.

kk 164-179
k 119 §1
k 625 §1
k 631 §1
B 3 **120.** Ohizko Kapitulu Orokorrak hautatzen du Anai-buru Orokorra.

Kapitulu Orokorrak finkatzen du Kontseilari Orokorraren kopurua; kopuru hori ez da seikoa baino txikiagoa izango. Era berean aurreikus ditzake zenbait Anai Kontseilari Orokorrak beteko dituzten zeregin nagusiak.

Lehenbizi, Anai Bikario Orokorra hautatzen du Kapitulu Orokorrak, berau da Kontseilarien artean lehena. Ondoren, Kontseiluko beste kideak hautatzen ditu. Guztiak eta bakoitza, emandako boto baliodunen gehiengo absolutuaz izan behar dira hautatuak, gehiengo hori lortzeko egin beharko diren boto zenbaketen kopurua edozein dela ere.

k 631 §2

120.1 *Anaiburu Orokorraren hautapenaren aurretik kontsultarako denboraldi bat har daiteke. Kapitulu Orokorrak berak zehaztuko ditu kontsulta-mota horiek.*

k 631 §2

120.2 *Anai Bikario Orokorraren eta Kontseilu Orokorreko beste kideen hautapena prestatzeko, Anaiburu Orokor hautatu berriak baliagarriak iruditzen zaizkion informazioak biltzen ditu eta kapitularrei jakinarazten dizkie.*

Anaiburu Orokorrak egokitzat jotzen badu, Kapituluaren barruan zundaketaren bat egitea proposa dezake, eta gero kargurako egokiak iruditzen zaizkion Anaien izenak aurkeztu hautesleei.

121. Jardunean diren Anaiburu Orokorrak eta Kontseilu Orokorreko kideek beren karguetan jarraitzen dute Anaiburu Orokor berria hautatu arte.

k 631 §2
k 578
k 587
k 593

122. Baieztapen Buldari egindako zuzenketa-proposamenek eta Konstituzioei buruzko gehitze-, aldatze- edota ezabatze-proposamenek, Kapitulu

Orokorrean emandako boto baliodunen bi hereneko gehiengo behar dute Aulki Santuaren baiesperaren pean jarri ahal izateko.

Behar bezala ohartarazitako xedapenik egon ezean, Estatutuaren zuzenketek botoen gehiengo absolutua behar dute.

Era berean, Kapitulu Orokorrenaren eskumena da Konstituzioetan edota Estatutuetan agertzen ez diren Anaidiaren zuzenbide berezkoaren osagaiak jasoko dituzten Direktorioak egiteko arauak zehaztea.

k 631 §2 **122.1** Kapitulu Orokorrak har dezake zenbait erabaki Estatutuetan sartu gabe. Erabaki horiek arau edo orientabide gisa indarrean egongo dira hurrengo ohizko Kapitulu Orokorreara arte, eta Kapitulu horrek ebaluatuko du haien aplikapena.

k 631 §2 **122.2** Kapituluaren erabaki guztiak zirkular ofizial batean argitaratu behar dira. Argitaratu eta hiru hilabetetara sartzen dira, beranduenez, indarrean.

k 631 §2 **122.3** Kapitulu Orokorrenaren eraketa-akta, Kapituluaren bukaerarena eta, era berean, Anaiburu Orokorrenaren, Anai Bikario eta beste Kontseilari Orokorren hautapen-aktak, Kapituluaren baiesperena proposatu behar dira eta haiek sinatuak izan.

8. KAPITULUA

GOBERNU ZENTRALA

k 627 §1 **123.** Anaidiaren gobernuaren erantzukizuna Anaiburu Orokorraren eskutan uzten du Kapitulu Orokorrak. Honi, Kontseilu Orokor izeneko Kontseilu iraunkor batek laguntzen dio.

***123.1** Anaidiaren lehen arduraduna den Anaiburu Orokorrarekiko lankidetzan estuan dihardute Anai Kontseilari Orokorrek. Kontseilarien osagarritasunean eta beren esperientziak elkar jarriz, zerbitzatzeko jarreraz adoreturik dira beren ardurapean jarriak izan diren erantzukizunetan.*

***123.2** Kontseilari Orokorrek hautatzerakoan kontuan hartzen dira gobernuko eginkizunen aniztasuna eta, ahal den neurrian, Anaidiaren unibertsaltasuna eta haren kultur aniztasuna.*

B 4 **124.** Anaidiaren Zentroan elkartea osaturik, batasunaren zeinu dira Anaiburu Orokorra eta bere Kontseilariak, eta saiatzen dira Lagunarte osoak Elizaren fedeari, Aulki Santuaren orientabideei eta Fundatzailearen karisma biziari zor dioten leialtasuna ziurtatzen.

124.1 *Anaiburu Orokorrek eta bere Kontseilariak elkartasuna eta elkarren arteko menpetasuna garatzeko misioa dute Anaidiaren baitan. Anaidiaren batasunak eta haren jardueraren eraginkortasunak beharrezko dituzten egiturak sortzeko eta mantentzeko ahaleginetan, pertsonen eskaintzen diete arreta nagusia.*

k 592 §2

124.2 *Anaiburu Orokorrek eta bere Kontseilariak beharrezko neurriak hartzen dituzte Anaien artean Fundatzailearen ezagutza zabaltzeko. Antzeko ahalegina egiten dute Araudiaren, Elizaren orientabideen eta Anaidiaren agiri arauemaileen ulermen egokia helarazteko. Horrela, testu horietan agertzen diren xedapenekiko atxiki-mendua errazten dute eta haien aplikapena bultzatzen.*

k 578

125. Gobernatzeko eran, Fundatzailearengandik jasotako ondare espiritualean beti bizirik dagoen dinamismo profetikora jotzen dute Anaiburu Orokorrek eta bere Kontseilariak.

Espirituari zabalik, Anaien berriztapen espiritualak, egoera ezberdinek eta misioaren premia berriek eskatzen duten bereizmena egiten dute, eta dagozkien erabakiak hartzen.

Anaidi osoarekin kontaktuan daude. Arreta handiz aukeratzen dituzte arduradunak eta sormenezko ekimenak sustatzen. Anaiburu Orokorra eta bere

Kontseilariak itxaropen-eramaile dira eta Anaidiko Anaia guztiekin partekatzen dute beren uste sendoa. Fundatzailearen karismaren eta Anaidiaren misioaren bermatzaile direnez, ez dute inoiz zalantzarik beren ustetan aldatu beharrezkoa dena Anaien aurrean auzitan jartzeko.

125.1 *Beren agintaldia hastean, Anaiburu Orokorrak eta bere Kontseilariak egitarau koherente bat ezartzen dute, beren ustez Espirituaren deiak edo Anaidiaren premiak direnei erantzun ahal izaten lagunduko diena; eta, era berean, Kapitulu Orokorrak emandako aginduei.*

Egitarau horrek, zehaztu egiten ditu Kontseilu Orokoro osoak bere gain hartzen dituen erantzukizunak eta Kontseilari Orokoro bakoitzaren ardurapean jartzen diren zeregin bereziak.

125.2 *Ohizko Kapitulu Orokoro biren arteko denboraldian, gutxienez behin biltzen dira Eskualde bakoitzeko Barruti, Azpibarruti eta Ordezkaritzetako ordezkariekin.*

Anaiburu Orokorra

k 129
kk 622-624
k 625 §1
k 626
k 629
kk 164-179
B 11

126. Anaiburu Orokorra Kapitulu Orokorrak aukeratzeko du eta Anaidi osoan erabiltzen du bere aginpidea Zuzenbide kanonikoko arauen eta Anaidiko legediaren arabera.

Hautatua izatean, betirako profesan Anaidian hamar urte gutxienez behar ditu izan. Haren agintaldiak hurrengo ohizko Kapitulu Orokorra arte irauten du. Izan daiteke berrautatua.

Eskuarki Etxeburuan bizi da bere Kontseiluarekin batera.

Kargutik kendua izan daiteke Anaidiaren Baieztapen Buldaren hamaikagarren artikuluan aurreikusten diren arrazoiengatik.

k 118

126.1 Anaiburu Orokorri dagokio:

- 1. ohiko Kapitulu Orokorrerako deia egitea eta, hala behar izanez gero, ezohiko Kapitulu Orokorrerakoa;*
- 2. karguak izendatzea, legedi kanonikoaren eta Anaidiarenaren arabera;*
- 3. bere zenbait botere berak aukeratutako Anaien esku uztea, zuzenbideak finkatutako mugen barruan;*
- 4. Anaidiaren lehen ordezkari gisa eta haren izenean harremanak izatea eliz hierarkiarekin eta beste edozein agintari edo erakunderekin.*
- 5. instantzia arduradunek behar bezala justifikatutako eskaeren arabera eta bere Kontseiluaren iritziarekin, Anaidiaren berezko legedian ezarritako diziplinazko arauen aldi baterako zenbait indargabetze baimentzea.*

126.2 *Anaiburu Orokor gaixo edo ezinduak utz ditzake bere botereak aldi baterako Anai Bikario Orokorrarengan. Eta egin ere egin beharko du Kontseilu Orokorrak botazio sekretuan eta gehien-go absolutuz hala eskatzen badio.*

126.3 *Kapitulu Orokorretik kanpo, Anaiburu Orokorrak dimisioa aurkeztu behar duela pentsatzen badu, Kontseilu Orokorreko kideei idatzitako gutun batean ematen du ezagutzera bere asmoa eta adierazten bere arrazoiak. Kontseilariak, interesatuaren absentzian eztabaidatu ondoren, botazio sekretuan eta gehien-go absolutuz erabakitzen dute eskaera onartu ala ez. Baiezkoan, Anai Bikario Orokorra izango da Anaiburu Orokor dimisionarioaren ondorengoa.*

126.4 *Anaiburu Orokorraren balizko kargugabetzea Aulki Santuak erabaki dezake, Kontseilu Orokorraren botazioaren ondoren (Ikus 130.2).*

Anai Bikario Orokorra

k 620

127. Anai Bikario Orokorra da Anaiburu Orokorraren lehen lankidea. Haren tokia hartzen du administrazio arruntean Anaiburu Orokorra kanpoan edo ezindua dagoenean.

Eskuarki ohiko Kapitulu Orokorrean aukeratzen da; salbuespenez, ezohiko Kapitulu Orokorra egitean edo

Kontseilu Orokorraren bileran ere, Estatutuek diotenaren arabera (Ikus 130.2).

Hautatua izatean, betirako profesan Anaidian hamar urte gutxienez behar ditu izan.

Haren agintaldiak hurrengo ohizko Kapitulu Orokorra arte irauten du. Izan daiteke berrautatua.

***127.1** Jardunean den Anaiburu Orokorra hiltzean, edota dimititzen duenean edo kargugabetzekasuan, Anai Bikario Orokorra izango da haren ondorengoa eskubide guztiekin, eta Anaiburu Orokorraren kargua beteko du, titulu hori hartuta, hurrengo ohizko Kapitulu Orokorrera arte.*

***127.2** Kapitulu Orokorra egitetik kanpo Anai Bikario Orokorraren kargua hutsik geldituko balitz, Kontseilu Okorrak, hala behar izanez gero, beste Anai Kontseilari Orokor bat hautatuko du lehenik eta, Kontseilua osatu ondoren, haren kideen artean Bikario Orokor berria, bi hereneko gehien-go (Ikus 130.2).*

Anai Kontseilari Okorrak

k 627

128. Kontseilari Orokorren zeregina Anaiburu Orokorrari Anaidiaren gobernu- eta animazio-lanean laguntzea da. Harekin partekatzen dute eta haren agintepean gobernu zentralerako zereginen multzoa.

Haien hautapena eskuarki ohizko Kapitulu Orokorrean egiten da; honek aldez aurretik erabakiko du Kontseilarien kopurua Anaidiaren premien arabera eta kontuan hartuz 120 artikulua.

Salbuespenez, ezohiko Kapitulu Orokorra egitean aukera daitezke, baita Kontseilu Orokorrearen bileran ere, Estatuetan aurreikusia dagoenaren arabera (Ikus 130.2).

Hautatuak izatean, betiko profesan Anaidian hamar urte gutxienez behar dituzte izan. Haien agintaldiek hurrengo ohizko Kapitulu Orokorra arte irauten dute. Izan daitezke berrautatuak.

128.1 *Bi Kapituluaren artean Anai Kontseilari Orokor batek dimisioa aurkez dezake, edota Anaiburu Orokorrek hori egitera gonbidatu. Kasu batean zein bestean, Kontseilu Orokorrek ez du erabakirik hartuko pertsona horiek aipatzen dituzten arrazoiak zuhurtzia handiz aztertu arte. Azken erabakia Kontseilari Orokor interesatuaren absentzian hartuko da, botazio sekretuan: gehiengo absolutua beharko da dimisio espontaneoaren onartzeko eta bi hereneko gehiengo dimititzera gonbidatua izan denean (Ikus 130.2).*

128.2 *Kontseilu Orokorrean postu bat hutsik gelditzen denean, Kontseiluak berak aukeratuko du Kontseilari berria, proposamena Anaiburu Orokorrek egiten duelarik, botazio sekretuan eta bi hereneko gehiengoz. Dena den, Anaiburu Orokorren*

eta haren Kontseiluari dagokie hutsik gelditutako postua bete behar den ala ez erabakitzea, jardunean diren Kontseilari Orokorren kopurua Kapitulu Orokorrak ezarritako mugen barnean mantentzen bada (Ikus 130.2).

128.3 1. *Ohizko bi Kapitulu Orokorren artean, Anaiburu Orokorrak kide berri bat edo bi erants diezaioke Kontseilu Orokorriari.*

2. *Lehenengo botazioan, Kontseilu Orokorrak bere kideen kopurua gehitzea komeni den ala ez erabakiko du. Baiezkoan, eta proposamena Anaiburu Orokorrak egiten duelarik, Kontseiluak Kontseilari Orokor berria edo berriak aukeratuko ditu.*

3. *Bai lehenengo botazioa, bai hautapen bakoitza, botazio sekretuan egingo.*

Kontseilu Orokorrenen bilerak

k 127
k 627

129. Kontseilu Orokorra Anaiburu Orokorrak bilazten du eta bera da beronen buru; Anaiburu Orokorrenen absentsian Anai Bikario Orokorrak beteko ditu zeregin horiek. Bileren maiztasuna eta ordenamendua, kasuen arabera botoen izaera eta kalifikazioa bezala, Zuzenbide kanonikoak eta Anai-diaren legediak arautzen dituzte.

k 127
k 627

130. Zenbait egintza baliotasunez burutzeko, Anaiburu Orokorrak Kontseilu Orokorrenen iritzia nahiz

onespena lortu behar du. Kasu horietan berak ez du botorik ematen.

Onespena eskatzen denean, boto-emaielen kopuruaren gehiengo absolutua behar da gutxienez. Boto hori, positiboa bada, ez da loteslea Anaiburu Orokorrentzat. Aitzitik, honek ezin du jardun gehiengoaren boto negatiboaren aurka.

Iritzia eskatzen denean, erabakia hartzeko libre gelditzen da Anaiburu Orokorra, edozein dela ere botazioaren emaitza.

Kasu batean zein bestean, Kontseilu Orokorriari eskatzen zaion quoruma kideen kopuru osoaren erdia da. Delako quorum hori ez bada lortzen eta presarik balego, bilera-buruari dagokio quoruma osatzea Zerbitzu Orokorretako arduradun bat edo bi onartuz deliberamendu eta botazioetara.

k 127
k 627
k 638 §3
k 1292

130.1 *Zuzenbide kanonikoak nahiz zuzenbide partikularrak kontuan dituzten kasuez gain, Kontseilu Orokorren onespena ondorengo kasu hauetan eskatzen da:*

1. *ezohiko Kapitulu Orokor baterako deialdia egiteko nahiz, presazko arrazoiengatik eta probisionalki, Kapitulu Orokorren ohizko eskumenari dagozkion zenbait neurri hartzeko;*
2. *legedi kanonikoak edo Aulki Santuak emandako ahalmenak, orokorki nahiz indibidualki aplikatzera zuzenduriko neurri orotan, legedi-testuak edo*

- kontzesio-aktak horrela aurreikusten dutenean;*
- 3. ondasunak besterentzean, zuzenbideak finkaturiko mugak gainditzen dituztenean, baita beren balio artistiko nahiz historikoagatik preziatutzat jotzen diren objektuak besterentzean ere;*
- 4. Anaiditik kanpo egindako mailegu edo jesapenetan, eragiketa horien kopurua edo baldintzak Anaiburu Orokorrak Anai Ikuslariari eta Barrutiko Kontseiluari emandako ahalmenak gainditzen dituztenean;*
- 5. Anai Kapitular osagarrien balizko izendapenean (Ikus 114.2);*
- 6. Anai Idazkari Orokorren izendapenean.*
- Kasu hauetatik kanpo, Kontseiluaren iritzia bakarrik eskatzen da.*

130.2 *Ezinezkoan izan ezik, jardunean diren Kontseilari guztiek hartu behar dute parte gorago aipatutako 126.4, 127, 127.2, 128, 128.1, 128.2, 128.3 artikuluetan aurreikusten diren deliberamendu eta botazioetan. Botazio horiek zenbaketa sekretuz eta bi hereneko gehiengoz hartu behar dira, 128.1 artikuluan adierazitako bi kasuak kontuan hartuta.*

130.3 *Bilera-buruak gonbidatuta, Kontseilarietz gain, beste Anaia batzuek ere har dezakete parte Kontseilu Orokorren zenbait bileretan, beren*

esku dituzten zereginak direla-eta edo beren gaitasun bereziarengatik. Anaia horien zeregina aholku-emaile izatea besterik ez da eta ez dute botazioetan parte hartzen.

Anaidiko Zerbitzu Orokorrak

131. Anaiburu Orokorrari eta haren Kontseiluari Zerbitzu Orokor jakin batzuk laguntzen diete gobernu-zereginen. Bi motakoak dira:

- batzuek izaera administratibokoak dira, alegia, komunikazioarekin, gobernu zentraleko bulegoetako lan-antolamenduari, ondasunen kudeaketarekin, arazo juridikoekin eta Aulki Santuarekiko harremanekin zerikusia dutenak dira.
- besteak Anaidiaren misiolaritza-, hezkuntza-, pastoral- eta formazio-helburuez arduratzen dira.

131.1 *Anaiburu Orokorrak, bere Kontseiluari kontsultatu ondoren, berrizta daitekeen epe jakin baterako obedientzia ematen die Anai Ekonomo Orokorrari eta Zerbitzu Orokorrerako beste arduradunei. Kontseilu Orokorrarekiko loturan lan egin ohi dute eta Kontseiluak deitu egiten ditu beraiei dagozkien gaiak aztertu behar diren bakoitzean. Direktorio administratiboan aurkitzen da haien erantzukizunen deskribapen egokia.*

9. KAPITULUA

BARRUTIA ETA ESKUALDEA

Barrutia

k 621

132. Barrutia gobernu-egitura bat baino zerbait gehiago da, bera osatzen duten elkarteen eta Anaien arteko elkartasunaren ohizko adierazpide da. Adierazi eta mantendu egiten du Anaien arteko batasuna, denei, elkarteei eta Anaiei, beren bizitzaren eta apostolutzan-lanaren erantzukizuna elkarrekin eramateko laguntza ematen dien batasuna.

Horregatik, Barrutiko arduradunen lehen zeregina Anaien eta elkarteen batasuna eta esku-hartze aktiboa sustatzea da, eta horrela haien testigantzaren balioa eta eraginkortasuna ziurtatzea tokiko Elizaren baitan.

Horrez gain, Barrutia beste Barruti edo Ordezkaritzekin harremanak sortzera eta mantentzera deitua dago eta Anaidiaren Zentroarekin elkarlotzen dutenak sendotzera.

***132.1** Barrutiko arduradunek eta Barrutiko obretakoek garatu eta sustatu egiten dute hezkuntza-misioan konprometituta dauden pertsonen arteko elkartasuna: Anaiak, Asoziatuak eta Par-taideak.*

k 581
k 621

133. Barrutia Anaiburu Orokorrak eraikitzen du, bere Kontseiluaren onepenez eta erabaki honek ukitzen dituen Anaiak kontsultatu ondoren.

133.1 *Barruti baten sorketak Barrutia osatzera deituak diren elkarteen artean zenbait lotura izatea suposatzen du. Gainera, berme gisa eskatzen du itxaropen sendoa edukitzea Barrutiak etorkizun hurbilean izango dituela, bai pertsonen bai ondasunen aldetik, elkarteen animazioa, Anaien formazioa eta ardurapean dituen obren garapena ziurtatzeko behar adina baliabide.*

133.2 *Barrutiko Kapituluak idatzi eta gaurkotu egiten ditu Barrutiko estatutuak. Estatutu hauek Anaiburu Orokorrak baietsi behar ditu, bere Kontseiluaren iritzia entzun ondoren.*

133.3 *Egoera geografiko, politiko nahiz bestelakoengatik, Barruti batek administrazio-sektore bat edo batzuk antola ditzake. Barrutiko Kapituluak erabakiko du haien autonomia erlatiboa eta Anaiburu Orokorrak baietsiko du, bere Kontseiluaren iritzia entzun ondoren.*

133.4 *Behar adina elkarte eta Anaia dituen Barrutiaren zati bat, zonalde soziokultural berezi batean kokatua edo Barrutiko erdigunetik urruti dagoena, antola daiteke Azpibarruti gisa. Barrutiarekiko batasuna nola mantendu aurre-*

ikusten duen estatutua Anaiburu Orokorrak ematen dio, bere Kontseiluaren iritzia entzun ondoren. Azpibarrutia Kontseilu baten laguntza izango duen Anai Ikuslari laguntzaile baten ardurapean jartzen da. Barrutiko Kapituluak zehazten ditu bata eta bestearen eskuduntzak.

133.5 *Anaien hasierako eta etengabeko formazioa da Barrutiaren ardurarik handienetakoa. Beharrezko diren baliabideak jartzen ditu bere lurraldean bertan emana izan dadin. Hori ezinezkoa balitz, beste Barrutiekin lankidetzan dihardu elkarren arteko formazio-zentroen animazioan.*

45. KO 5. kap

133.6 *Partaideen salletar formazioa, hezkuntza-elkartean edozein funtzio betetzen dutela ere, Barrutiaren lehentasunetako bat da.*

133.7 *Misio partekatuaaren alorrean, Barruti bakoitzak bere obren animazio eta administrazioarako beharrezkoak dituen egiturak eduki behar ditu.*

k 581
k 585

133.8 *Barruti batek 133.1 artikuluan aipatutako baldintzak betetzen ez baditu, elkarrizketa bideratu behar da beronen eta bere Eskualdearen artean. Ondoren, Anaiburu Orokorrak eta bere Kontseiluak dagozkien neurriak hartuko dituzte, eta dena pertsonenganako begirunean egiten dela zainduko dute.*

Ordezkaritza

134. Ordezkaritza oro elkarte multzo batez osatzen da, arrazoi praktikoengatik nahiz behin-behinekoengatik ez daitekeena izan ez Barruti ez Azpibarruti. Ordezkaritza, zuzenean, Anaiburu Orokorren agintaritzapean gelditzen da.

***134.1** Ordezkaritza bat ezohiko kasuetan eraiki dezake Anaiburu Orokorrak, bere Kontseiluaren iritzia entzun eta Anaia eta elkarte inplikatuak kontsultatu ondoren. Berari dagokio Ordezkaritzaren egiturak zehaztea eta arduradunak izendatzea.*

Eskualdea

135. Eskualdea, Anaidiko Barruti, Azpibarruti eta Ordezkaritzen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako erakunde iraunkorra da.

Eskualdeko Anaien eta misioan konprometitzen diren guztien arteko espiritu- eta bihotz-batasuna, komunikazio eta truke eraginkorren bitartez sortu eta garatzen da. Eskualdeak lankidetzeta hobea ahalbideratzen du, elkarren arteko dinamismo handiagoa sustatzen eta Anaidiko Zentroarekin harreman estuagoa errazten.

Anaiburu Orokorra eta bere Kontseilua erne egongo dira Anaidiko zatirik ez dadin gera isolatuta.

135.1 *Eskualdeen osaketa, alde batetik, Anaiburu Orokorraren eta haren Kontseiluaren, eta bestetik inplikaturako Barruti, Azpibarruti eta Ordezkaritzen arteko akordioaren fruitu da.*

136. Eskualdea forma nahiko ezberdinez antolatua izan daiteke. Barruti, Azpibarruti eta Ordezkaritza inplikaturaei dagokie Eskualde gisa elkartzeko horren mota ezberdinak aztertu eta zehaztea. Anaiburu Orokorraren eta haren Kontseiluaren agintaritzapean jartzen dute haren egitasmoa.

136.1 *Eskualde bereko Anai Ikuslariak eta Ordezkaritzetako arduradunek Konferentzia osatzen dute Eskualderako Anai Kontseilari Orokorraren lehen-dakaritzapean.*

Eskualdeko Asanbladan nahiz Konferentzian prestatzen dituzte Eskualdeko estatutuak eta Anaiburu Orokorraren eta haren Kontseiluaren baiespenaren pean jartzen. Eskualdeak nahiz Anaiburu Orokorrak hala nahi izanez gero, Eskualdeko estatutuek Eskualderako Kontseilari Orokorrari erabakitze eta aginpidezko eginkizuna eman diezaiokete zenbait alorretan edo kasu jakin batzuetan.

136.2 *Eskualderako Anai Kontseilari Orokorrak Eskualdeko Anai Ikuslarien arteko loturak sustatzen ditu eta beren misioan sostengatzen. Eskualdearen eta Kontseilu Orokor eta Anaidiko*

zerbitzu ezberdinen arteko batasuna ziurtatzen du. Anaidiak hartutako erabakien aplikapena zaintzen du eta Eskualde osoak hartu dituen programena ere. Lankidetzaren eta elkarren arteko menpetasuna ere garatzen ditu Eskualdearen baitan eta honen eta beste Eskualdeen artean.

136.3 *Premia bereziak dituzten edo bokazioetan urri diren Anaidiko tokietara Anaiak bidaltzea eta haiekin baliabide materialak edota espiritualak partekatzea Eskualdeen arteko lankidetzaren era bikainak dira. Barruti bidaltzaileen eta hartzaileen arteko hitzarmen sinatuek zehazten dituzte lankidetzaren horren moduak.*

Barruti Kapitulumia

k 632

137. Barruti Kapitulumia asanblada pastoral eta administratiboa da, Anaien arteko batasun sakona adierazten duena eta, zuzenean nahiz ordezkatuta, Barrutiko gogoeta- eta erabakitze-instantzietan aktiboki parte hartzeko aukera ematen diena.

Anai Ikuslariak bilarazten du Barruti Kapitulumia. Barrutiko bizitzaren alderdi guztiak ebaluatzen ditu; gogoan du tokiko egoera eta berriztapen-, egokitze- edo garapen-proiektu zehatzak programatzen ditu etorkizun hurbilerako. Ebaluazio eta egitasmo horiek Elizaren eta Anaidiaren arau eta orientabideen argitan lantzen dira.

137.1 *Barruti Kapitulua antolatzerakoan aukera emango zaio Hezkuntza Misioreen instantzia ezberdinetatik interpelatua izateari.*

138. Barruti Kapitulua ez esaten den oro Azpibarrutiari ere dagokio, haren estatutuetan zehaztu diren modalitateen arabera.

139. Barruti Kapitulua Anai Ikuslariaren agintaldia amaitzen denean egiten da normalean. Kapitulua Orokor baten ondoren ere egin behar da, Kapitulua hartutako erabakien aplikapena sustatzeko.

Egoerak hala eskatuz gero, Kapitulua Orokorra baino lehen hasitako Barruti Kapitulua azken etapa har daiteke Kapitulua Orokorren ondoren egin behar den Kapitulutzat.

139.1 *Anai Ikuslaria da Barruti Kapitulua buru. Kapitulua berak aukeratzen ditu zuzendaritza-mahaiko beste kideak.*

139.2 *Bere Kontseiluaren iritzia entzun ondoren, Anai Ikuslariak ezohiko Kapitulua bat deitzea erabaki dezake; eta egin ere egin beharko du aurreko Kapituluko kideen erdiak hala eskatuz gero.*

140. Kapitularrak izendatzeko erak zehazterakoan, Barruti Kapitulua edo, honen faltan, Anai Ikuslaria eta bere Kontseilua saiatuko dira adin, eskumen, eginkizun eta zonalde ezberdinetako Anai taldeen ordezkaritza orekatua segurtatzen.

Dena den, ondorengo arau hauek kontuan hartuko dira:

1. Eskubidezko kide dira Anai Iksulariak, titularra eta laguntzailea(k), Barruti Kontseiluko kideak eta aurreko Kapituluak horrela izendatutako Anaia batzuk.
2. Barruti Kapitulurako hautatutako Anaien kopurua, eskubidezko kideena baino handiagoa izango da.
3. Barrutiko Anaia guztiak dira hautesle eta hautagai.
4. Anai Iksulariak eta bere Kontseiluak erabaki dezakete Barruti Kapituluan parte hartzera Anaia guztiak gonbidatzea. Hautatutako kideek edota eskubidezkoek bakarrik eman dezakete botoa.

k 633

140.1 *Kapituluak interpelatzeko aukera ematen die Barrutiko Anaiei; guztiak prestaketan parte hartzen saiatzen da eta esku-hartzerik handiena sustatzen.*

141. Barruti Kapituluak hartzen dituen erabakiek ados egon behar dute beti Kapituluko Orokorratik datozen orientabideekin. Hartutako erabakiak Anai-buru Orokorrari eta haren Kontseiluari helarazten zaizkie baiespenerako.

Baietsiak izan ondoren, berehala sartzen dira indarrean Barrutian, arauko balioaz dagozkien guztientzat. Barrutiko Anaiei jakitera emango zaizkie.

141.1 *Misio partekatuan diharduten guztien parte-hartze egokia segurtatzeko, Barrutiko era-*

bakiek edo estatutuek zehaztu egin behar dituzte misio partekatu hori errazten duten egiturak eta funtzionamendua.

Anai Ikuslaria

k 617
k 618
k 619
k 620
k 832

142. Anai Ikuslaria Barrutiaren batasunaren eta bizitasunaren berme da; bera da beronen lehen arduraduna eta lehen animatzailea. Erlijioso-buru nagusiari dagokion aginpidea, Zuzenbide kanonikoaren eta Anaidiaren zuzenbide berezkoaren arauen arabera betetzen du eta Barruti Kapitulutik datozen araeukiko adostasunean.

Anai Ikuslaria bere Anaien zerbitzura dago, gogo onez entzuten die eta haiekin kontaktuan egon ohi da. Bakoitzaren bokazio pertsonalaren garapenaz arduratzen da etengabe eta guztien artean lankidetzaz estua sustatzen du, misioa ahalik hobekien burutzeko obren multzoaren bidez.

Anai Ikuslariak osatzen ditu elkarteak eta izendatzen kargu ezberdinetako arduradunak, Barruti Kapitulua ezarritako xedapenen arabera. Elkarteak bisitatzen ditu eta Eskualdearekiko eta Anaidiaren Zentroarekiko lotura segurtatzen du.

Berak onartzen du nobiziatzura eta botoetara, 92.1 eta 98.2an aurreikusitako xedapenak salbu. Zuzenbideak aurreikusten dituen baimenak ematen ditu, besteak beste erlijioaz edo moralaz diharduten idaztiak argitaratzeko.

142.1 *Urtean behin gutxienez elkarteetara egiten duen ikustaldian, Anai Ikuslariak Anaiekin ebaluatu egiten ditu elkarte-bizitzaren kalitatea, haien apostolutza-jarduerak eta bizitza espirituala baldintzatzen duten osagaiak. Behar izanez gero, berriro zehazten ditu haiekin lortu beharrezko helburuak, aurretik egin eta baietsitako elkarte-egitasmoa erreferentziatzat harturik. Ikustaldian Anaia bakoitzarekin elkarrizketatzen da.*

142.2 *Anai Ikuslariak Anaidiaren Zentrotik jasotako dokumentazioaren berri ematen die Anaiei. Mezua helarazten saiatzen da eta beronen aplikapena errazten.*

Urtero Barrutiaren egoerari buruzko txosten labur baina aski dokumentatua helaraziko dio Anaiburu Orokorrari.

142.3 *Anai Ikuslariak Anaien eta Sekularren arteko topaketak antolatzen ditu bizitza erlijioso, apostoliko eta profesionalaren inguruan. Topaketa hauek ideien eta esperientzien trukaketa bideratzen dute eta ekintza zehatzak abian jartzea ere.*

Anai Ikuslariak ziurtatzen du obren animaziorako eta antolaketarako Barrutiak ezarritako egituren funtzionamenduaren ebaluazioa.

142.4 *Anai Ikuslaria Barrutiaren ondasunei eta Anaien ondare-ondasunei buruzko Zuzenbide kanonikoko eta legedi zibileko xedapenak errespe-*

tatzen direla aseguratzen da. Hori bera egiten du langile enplegatuei dagokien justizia sozialarekin. Bere esku dago eraikuntzak, konponketak eta gainerako gastuak baimentzea Anaiburu Orokorrak jarritako mugen barruan.

142.5 *Anai Ikuslariak bokazio-pastoralgintza sustatzen du. Anaien hasiera-formazioa arretaz jarraitzen du eta zeregin horretarako prestatutako Anai talde baten laguntza eskaintzen die. Edozein adineko Anaiek beren garapen pertsonala aurrera eramateko eta formazio iraunkorreko programe-tan parte hartzeko baldintza egokiak izan ditzaten ziurtatzen du. Anai Zuzendariei adore ematen die haien animazio-zereginean.*

k 623

143. Anaiburu Orokorrak izendatzen du Anai Ikuslaria, bere Kontseiluaren iritzia entzun ondoren. Horretarako, hautagaien zerrenda bat osatzearren egindako zundaketa-botazioaren emaitzak aurkezten dizkio Barrutiak. Izendatua izatean, betiko profesan Anaidian bost urte gutxienez behar ditu izan (Ikus 144.1).

k 624

144. Anai Ikuslaria hiru urte nahiz lau urtetarako da izendatua, Barruti Kapituluak erabakita duenaren arabera.

Anai Ikuslari baten hurrenez hurreneko agintaldiek Barruti berean ezin dute bederatzi urtetik gorakoak izan.

44.KO 8.
kap, 3.6

144.1 *Barruti Kapituluak ezartzen du Anaiburu Orokorri Ikuslari kargurako egokitzat jotzen diren hiru Anaien izenak aurkezteko jarraitu behar den prozedura. Prozedura horrek, alde batetik, Barrutiko Anaia guztiak kontsultatuak izatearen printzipioa errespetatu behar du eta, bestetik, Anaiburu Orokorriaren hautapen-askatasunarena. Horretarako, izendapenerako azken zundaketa zenbatu gabe bidaliko zaio Anaiburu Orokorriari.*

144.2 *Anai Ikuslariak, Anai Ikuslari Laguntzaile baten edo batzuen laguntza izan dezake. Hauek, Barruti Kapituluak finkatutako prozeduraren arabera egindako aurkezpenaren ondoren izendatuko ditu Anaiburu Orokorriak.*

43. KO 32.
Gomendioa

144.3 *Anaiburu Orokorriak izenda dezake Barruti bateko Ikuslari, Barruti horretakoa ez den Anaiaren bat.*

k 609 §1
k 616 §1
B 2

145. Elkarte bat irekitzeko, Anai Ikuslariak Anaiburu Orokorriaren eta elizbarrutiko Gotzainaren onespena behar du, aurretik idatziz emana.

Elkarte bat ixtea Anaiburu Orokorriari dagokio, aurretik tokiko Gotzaina kontsultatu ondoren.

146. Anaiaren bat Barruti batetik beste batera aldatzea Anaia horren adostasunez egiten da, Anai Ikuslari inplikatuak bat etorri eta haien Kontseiluen iritzia jaso ondoren.

Barrutiko Kontseilua

k 627

147. Barrutiko Kontseiluaren misioa batasuna sustatzea da eta Anai Ikuslariari bere karguaren jardunean laguntzea. Elkarrekin, Barrutiaren bizitzari dagozkion egitasmoak lantzen dituzte eta sortzen diren arazoei aurre egiteko modua aztertzen.

Urtero Anai Ikuslariak, bere Kontseiluarekin, bere lanaren eta Barrutiaren egoeraren ebaluazio anai-korra egiten du.

***147.1** Anai Ikuslariak eta bere Kontseiluak, misiorako erakunde ezberdinekin modu osagarrian lan egiten dute misioari dagozkion orientabideak eta erabakiak lantzeko, azken erantzukizuna Anai Ikuslariari dagokiolarik.*

148. Barruti Kapituluak erabakitzen du Barrutiko Kontseilarien kopurua, haien jardunaldiaren iraupena finkatzen du eta haien hautapenaren edo izendapenaren prozedura ezartzen.

Anai Ikuslari Titularra da, eskubidez, Barrutiko Kontseiluaren buru. Anai Ikuslari Laguntzaileak eskubidezko kide dira.

***148.1** Kontseilarien gutxieneko kopurua seikoa da; bi heren gutxienez hautatuak dira. Anai Ikuslariak, berak zuzenean aukeratutako kontseilariren bat edo beste izenda dezake, Anaien ordezkaritza hobea bermatzeko.*

148.2 Ordezko batzuk aukeratzen dira. Hauek Kontseiluaren bilera guztietan parte har dezakete. Ez dute, ordea, boto eskubiderik besteren baten ordezkozten dihardutenean ez bada.

148.3 Anai Ikuslari Titularrak edo bere ordezkariak egiten du Barrutiko Kontseilurako deialdia, eta bera da edo bere ordezkaria Kontseiluaren buru. Egoerak eskatzen duen maiztasunez biltzen da eta gutxienez hiru hilabetean behin.

Kontseilu-kideen erdiak gutxienez eskatuz gero ere, biltzen da.

Kontseilu-kide guztiei egin behar zaie dei eta, behar izanez gero, ordezkoari edo ordezkoei.

Anai Ikuslariak aholkulari batzuk gonbida ditzake Kontseiluaren bileretara, baina ez dute botoa emateko eskubiderik.

148.4 Kontseiluaren bileretako lan-egitasmoa Anai Ikuslariaren edo honen ordezkariaren ardurapean prestatzen da, eta, aldez aurretik, garaiz bidaltzen zaie Kontseilarietara eta ordezkoei. Barrutiko edozein Anaiak proposa diezaioke gairen bat Kontseiluari. Gai-zerrendan nahitaez egon behar dute Kontseilukideek proposatutako gaiak. Diskrezioa gorderik, aztertutako gaien eta hartutako erabakien berri emango zaie Barrutiko Anaietara.

Erregistro berezian gordetzen dira Kontseiluaren deliberamenduen aktak eta Anaiburu Orokorrak har ditzakeen erabakiak ere.

k 127
k 627

149. Zenbait ekintzen baliotasunerako, Anai Ikuslariak bere Kontseiluaren iritzia nahiz onespena lortu behar du. Kontseiluaren onespena eskatzen denean, Anai Ikuslariak ezin du jardun gehiengoaren boto negatiboaren aurka.

Kontseiluaren iritzia behar denean, erabakia hartzeko libre gelditzen da Anai Ikuslaria, edozein dela ere botazioaren emaitza.

Barrutiko Kontseiluari eskatzen zaion quoruma, kideen kopuru osoaren erdia da. Anai Ikuslariak ez du esku hartzen botazioan, baina berari dagokio azken erabakia hartzea.

k 656, 3
k 703

149.1 *Barrutiko Kontseiluaren onespena kasu hauetarako behar da:*

1. *betirako profesara onartzeko (Ikus 98.2);*
2. *Barrutian bizi den Anaia profesadun bat Anaiditik bidaltzeko, Barrutikoa izan ala ez, Zuzenbide kano- nikoak larrizat jotzen dituen kasuetan;*
3. *Barruti beraren barruan etxe bateko ondasunak beste etxe batera aldatzeko;*
4. *ixten den etxe bateko ondasunekin zer egin erabakitzeko;*
5. *ekonomi alorrean Anai Zuzendariei eta Ekono- moei emandako botereak mugatzeko;*
6. *Barrutiko ekonomia konprometitzen duten ezo- hiko administrazio-eragiketetarako.*

k 641

149.2 *Barrutiko Kontseiluaren iritzia kasu hauetarako behar da:*

- 1. kandidatuen nobiziatuaren onartzeko;*
- 2. Barrutiko Ekonomia eta Zerbitzu Orokorretako beste arduradunak izendatzeko;*
- 3. Barruti Kapitulua bilarazteko.*

k 609 §1
k 1292

149.3 *Anaiburu Orokorren berrespenaren pean jarri baino lehen, Barruti Kontseiluaren iritzia kasu hauetarako behar da:*

- 1. elkarteren bat irekitzeko nahiz ixteko proiektu orotarako, eta hezkuntzazko pastoral-obra bat onartzeko, besteren esku uzteko nahiz ixteko;*
- 2. Aulki Santuak jarritako mugak gainditzen dituen ondasunen besterentze orotarako;*
- 3. Barrutitik kanpo egindako mailegu edo jesapen orotarako, horren zenbatekoa nahiz jarritako baldintzek Kontseilu Orokorrek finkatutako mugak gainditzen dituztenean;*
- 4. Barrutia eta Anaidia tokiko Elizako nahiz beste erakunde publiko edo pribatueta arduradunekin modu solidarioan konprometitzen duen konbentzio- edo kontratu-proposamen orotarako;*
- 5. Aulki Santuak Anaiburu Orokorren eta haren Kontseiluaren erabakiaren esku utzi dituen ahalmenak aplikatzeko eskaera orotarako.*

149.4 *Barrutiko Kontseiluaren botoa erabakigarria*

dela espresuki esaten ez den kasu guztietan, iritzibotoa da besterik gabe.

Barrutiko Kontseilurako esaten denak Azpibarrutiko Kontseilurako ere balio du, dagokion neurrian.

Ondasun tenporalen kudeaketa

kk 634-640 **150.** Anaidia, Barrutia, legez eraikitako beste taldeak eta elkarteak ez dira irabazi-asmotan jarduten. Ondasun tenporalak eskuratzeko, edukitzeko, administratzeko eta besterentzeko ahalmena dute, beren misioaren burutzapenaren zerbitzuan. Instantzia horiek, jasotako baimenen mugean barruan dihardute eta beren ardurapean, Elizaren Zuzenbide kanonikoaren eta Anaidiaren zuzenbidearen arabera, eta lege zibilak kontuan hartuz.

Anaidiaren ondasunen administrazioaren arduradunak Anaiak, Elizaren ondasunen gordailuzain baimen zaintzen dituzte.

Errekurtsoen bidezko partekatzea egon dadin ahalegintzen dira maila guztietako arduradunak. Horretarako hobeki hornitutakoek gutxiago dute Anaiari laguntzera jotzen dute, sektore bereko elkarteetan arteko bizi-baldintzetan egon litezkeen ezberdintasunak, ahal den neurrian, gutxitu daitezten.

k 635 §1

150.1 *Anaidiaren ondasunen administrazioa zibilki onartutako erakundeen esku jartzen denean, xedapen horiek Anaiburu Orokorren eta haren*

Kontseiluaren agintaritzapean jarri behar dira baiespenerako.

44. KO 8.
kap, 3.3

150.2 *Barrutiek garbi desberdintzen dituzte, herrialdeko legeen arabera, alde batetik, misioaren zerbitzura dauden ondasunak eta errekurtsuak eta, bestetik, Barrutiaren, Anaien elkarteen, ondare direnak.*

k 636
k 1280

151. *Barruti bakoitzean, Ekonomo bat, Anai Ikuslaria ez dena, baina haren agintepean diharduena, arduratzen da ondasunen administrazioaz; Ekonomi Kontseilu batek laguntzen dio.*

151.1 *Barruti Kapituluaaren orientabideen arabera, Ekonomoak urteko aurrekontua prestatzen du Ekonomi Kontseiluaren laguntzaz. Ondoren Anai Ikuslariari eta honen Kontseiluari proposatzen die. Ekonomi Kontseiluak, bere aldetik, aurrekontuaren betearazpena kontrolatzen du eta agertzen diren zailtasunen soluziobidea aztertzen.*

k 636 §2

151.2 *Ekonomoak, urtero, Barrutiko ekonomiaren egoerari buruzko txostena aurkezten die Anai Ikuslariari eta haren Kontseiluari baiespenerako. Anai Ikuslariak txosten hau, behar bezala egiaztatuta, Anai Ekonomo Orokorrari bidaltzen dio.*

151.3 *Barruti, Azpibarruti eta Ordezkaritzek modu solidarioan ordaintzen dituzte Anaidiko adminis-*

trazio zentralaren funtzionamenduaren gastuak eta hari dagozkion beste gastuak.

Kapitulu Orokorrak ezarritako eta urtero Kontseilu Orokorrak gaurkoratzen duen sistema baten arabera kalkulatzen da Barrutien ordainketa, Nazioarteko Ekonomi Kontseiluaren proposamenari jarraiki.

10. KAPITULUA

ANAIK GAUR

1 Ko 9, 18
AO 1. kap
GO 194,1
GO 201,1
GO 207,3

152. La Salleko San Joan Bautistaren garaitik, “Anaidi hau premia oso handikoa da”. Gazteek, pobreek, munduak eta Elizak Anaien testigantzaren eta ministerioaren beharra dute. Doakotasuna bere fundazioaren funtsezko ezaugarri eginez, La Sallek gonbidatu egin zituen Anaiak Jainkoaren maitasunaren doakotasuna adieraztera. Haren dizipuluek, hark bezalaxe, honako esperientzia bizi dute, alegia, Jainkoak ez duela “bere egintza” eskutik uzten, baizik eta “atsegin duela egunetik egunera hari fruituak emanaraztea.”

D 23
44. KO

153. Gaur egun, Anaiek, Partaideekin batera, modu sortzailean erantzun nahi diete gazteen hezkuntzako eta espirituzko premiei, batik bat zaugarrienen premiei.

1 Ko 3,6-15
GO 207,3

154. Anaidiaren bizia eta garapena, lehenik eta behin, graziaren misterioaren eta ahalmenaren esku daude. Halere, askatasunaren dohainari esker, Jaunak Anaien eskutan utzi nahi izan du Anaidiaren etorkizuna. Salletar familiaren bihotzean, Anaiak inspirazio-iturri izaten jarraitzen dute Anaidiaren misioa eta karisma gero eta gehiago partekatzen duten Salletar guztientzat.

VC 63
CL 7, 311-
318

155. Anaiak ezagutzen eta aztertzen dituzte Anaidiak jasaten dituen zailtasunak eta erronkak eta fedean oinarrituz elkarrekin aurre egiten diete. Beren bizitzan eta Anaidiarenean diharduen salbamehistoria kontenplazten duten bitartean, pazko-misterioaren grazia bizi dute. Fundatzailearen ibilbide ebanjelikoa hausnartzean, leialtasun-eredu bat aurkitzen dute zorigaitzean eta berriro hasteko indarra.

156. Anaiak arrazoi asko dituzte esker oneko izateko eta esperantzan hazteko:

– Pozten dira adineko Anaien leialtasunagatik eta Anaidiari dioten maitasunagatik.

– Behartsuen hezkuntza-zerbitzurako asoziazio-botoa modu gero eta sakonagoan ulertze horretan, jatorriekiko leialtasun handiagoren borondatea ikusten dute.

– Pozez konstatatzen dute Anaidia nola ari den ezartzen eta garatzen zenbait lurraldetan eta Anaien presentzia nola den eraginkorra pobreen eta jende baztertuen artean.

– Miretsi egiten dute kultura ezberdinetako gazteenganako irekitasunean adierazten den bulkada misiolaria, bakoitzaren ondare erlijiosoa errespetatzeari eta Ebanjelioaren balioen arabera pertsona eraikitzeari, biei, arreta izanez.

- Alaitasunez onartzen dute bokazio berri bakoitza Jainkoaren graziaren adierazpen berritua denez.

VC 54-55
SBE 70
Kristogandik
abiatur 31

157. La Salleko Joan Bautistak, Anaiekin bitza osorako konprometitzu, santutasun-bide bat ireki zuen hezitzaile guztientzat. Anaiak, salletar karismaren lehen jasotzaileak, pozik dira Partaideetako askok Fundatzailea bere ibilbidean, espiritualtasunean eta egintzan sakonago ezagutu nahi dutela ikustean.

Anaiekin ibilbidea egin eta gaur egun La Salleko Joan Bautistaren seme-alabatzat dauzkaten gizon-emakume horiekiko asoziazioaren garapenean, esperantzaz betetzen dituen aldien zeinua ikusten dute Anaiek.

Horrexegatik, erantzukizun berezi batez hartuta daudela sentitzen dira beren ondare pedagogikoa eta espirituala lankideekin partekatzen dutenean. Esperientzia horren bitartez jasotzen dituzte, “Anaiak gaur” izateko Espirituak zuzentzen dizkien deiak:

- haiekin anaiak izateko deia, eta senidetasuna salletar hezitzaile guztientzako zeinu gisa bizitzeko deia;
- haientzat eta haiekin Jainkoaren argiaren bitartekari izateko deia, izan ere “Hark egin du argi hurrei bere hitza hots egiteko aukeratu zituenen bihotzetan”;
- haien artean eta haiekin salletar karismaren bihotz, oroimen eta berme izateko deia.

PC 2
k 662
AO 16. kap
D 6-7

158. Araudiak Anaidiaren karisma adierazten du eta Anaiei beren bizitzaren egungo zentzua azaltzen die. Ebanjelioa Fundatzailearen antzera bizitzeko bidea erakusten die.

Anaiek, pertsonalki eta elkartean, Araudia aztertu eta hausnartu egiten dute, haren aberastasunak eta espiritua bereganatuz. Hari leial izanez Jesu Kristori jarraitzen eta zerbitzatzen diote.

Mt 20,1-16
Lk 10, 2
VC 60
SBE 54-57
45. KO 4. kap

159. Anaiak konbentzituta daude beren senidetasuna, erlijioso laiko gisa elkartean eta hezkuntza-ministerioan bizitua, zeinu profetikoa dela Elizarentzat eta munduarentzat. Horregatik, Anai bokazio-pastoral-gintzarekiko konpromisoa bizitasunaren iturburutzat eta etorkizunaren bermetzat hartzen dute.

Anaiek, Partaideekin, Jaunak gaur egun ere bere mahastira bidaltzeko langileak deitzen dituelako konbentzimenduan sustraitzen dute salletar bokazioen pastoralgintza.

D 5-7
D 10-11
D 53
JO 106, 1
GO 201
T

160. Guk, Anaiok, La Salleko San Joan Bautistari, Fundatzaileari zor zaion maitasuna diogu. Jarraitu egiten diogu Jainkoarenganako usteon mugagabeen, Elizari zion leialtasunean, apostolutza-sen sortzailean eta bizitza osoan gazteria ebanjelizatzeke izan zuen konpromisoan.

